



Goierrin egiten da Europako autobusik onena

Martxan da
Goierri
Telebista

Joxe Mari
Jauregi eta Eli
Gorrotxategi
artzainak

Bixente
Barandiaran
bertsolari eta
idazlea hil da



K I M E T Z

I L E A P A I N D E G I A

943 88 1442 MENDEURREN ETORBIDEA, 2 20200 BEASAIN





ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

www.anzizar.com



EUROLAN 4x4-k zerbitzu berria ireki du Goierriarako: ANZIZAR



THE LAND ROVER EXPERIENCE

ANZIZAR Beasain-Zumarraga errepidea Telefonoa: 943 88 17 00

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)
124 posta-kutxa ORDIZIA
Tfnoa: 943 88 96 12
Faxa: 943 88 27 19
Posta elektronikoa:
goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Edurne Soraluze, Jon Muñoa, Ainhoa Mujika, Doltza Barandiaran, Aimar Maiz, Zelai Amenabarro, Aitziber Murua, Maite Lasa, Iñaki Ugalde, Aitor Madrazo eta Landarlan.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9, Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Garapen jasangarriaren alde Goierriko Udaltalde 21 eratu da

Urriaren 2an, Goierriko Udaltalde 21 proiektua eratzeke eta garatzeko hitzarmena sinatu zuten Eusko Jaularitzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak (Ihobe Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bidez), Gipuzkoako Foru Aldundiak, Goieki Eskualdeko Garapen Agentziak eta Goierriko 18 udalerriek. Hitzarmen honekin, Alzaga, Arama, Beasain, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zeraingo udalek, garapen jasangarriaren alde lan egiteko konpromisoa hartu dute.

Udaltalde honen helburua udaletako lan-talde bat sortzea da, Goiekiren zuzendaritzapean eta Foru Aldundiarekin eta Iloberekin elkarlanean, Tokiko Agenda 21 proiektuak ezartzea errazago izan dadin, parte hartzen duten udalei laguntza eta trebakuntza bateratua eskainiz. Hartara, udalerriek Tokiko Agenda 21 diseinatzean izan dituzten esperientziak trukatu eta jarduera bateratuak gauza ditzakete interes komuneko zenbait arlotan.

Herritarren parte hartzearekin udalerriaren ingurumena etengabe hobetzeko bidean aurrera egiteko udalerriek erabiltzen duten metodoa da Tokiko Agenda 21.

Udaltalde 21 hau, dagoeneko, Euskal Autonomia Erkidegoan hamargarrena da; Udaltalde 21 horiek guztiek ingurumena hobetzeko konpromisoa hartu duten 80 udalerrri baino gehiago biltzen dituzte.

Brasilgo Rio de Janeiron 1992an egin zen Ingurumen eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzian Agenda 21 izeneko estrategia orokorra erabaki zen garapen eramangarriaren bidetik planetaren suntsipena eragotzi lezaketen politika ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoak hartzeko. Garapen eramangarriaren aldeko ekimenak duen garrantzia kontuan hartuta, Agenda 21eko 28. kapituluari dei egiten da udal administrazioen, herritarren, gizarte erakundeen eta enpresen arteko elkarbizketa eta adostasunaren bidez tokian Tokiko Agenda 21 erabaki dadin.

Goierritarra Goierriko kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:	urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa:	urtean 24 euro
Europaz kanpo:	urtean 36 euro

Joxe Mari Otegi, Itsasondoko alkatea:

"Herriarren izenean, herri borondatean oinarritzen ez den beste biderik ez dugu onartuko"

Urriaren 3an, Joxe Mari Otegi Itsasondoko alkatea, Aizarnazabalgo, Irurako, Leaburuko eta Hernialdeko alkateekin batera prentsaurrea eskaini zuen Donostian. Hain zuzen ere, maiatzaren 25eko udal hauteskundeetan herri plataformek boto gehien eskuratu zituzten herrietako ordezkariak ziren bostak. "Herriarrek plataformei eman zien gehiengoak bozka eta konfidantza, nahiz eta espainiar Auzitegi Gorenak atzera boteak izan", azpimarratu zuten. "Izan ziren gure herrietan beste hautagai zerrenda batzuk ere. Hauek guztiak Tribunal Gorenenak baimenduak noski; hala nola, EAJ-EA, PP eta baita PSOE renak ere. Ia kasu denetan, zerrenda hauetako kideak, herriarrek ez izaki, gure herria eta guretzat ere ezezagunak ziren pertsonak ziren", gaineratu zuten. Egoera horretan, "Lege-riaren horren baitako emaitzek, herri borondatearen aurka, EAJ-EA alderdiei eman zizkien gure udaletako hautesiak. Udalak osatzeko egunean, eta kasu batzutan aurretik



ere, beraien hautetsi karguari uko egin zioten EAJ-EA-ko zerrendetan joan ziren kide hauek. Jarrera logikoa bestalde, hautetsi aulki horiek herri borondateak guri eman baitzizkigun. Baina egun horretatik aurrera hasi zen gure herrirentzat egoera jasangaitza", salatu zuten.

Joxe Mari Otegiren gogoratu zuenez, "ez dugu EAJ-EA-ren berririk izan gehiago. Herri borondatearen arabera Udalak osatzeko aurrera pausurik ez dute ematen. Gure herriekiko utzikeria nabarmena izan dute EAJ-EA-k eta hau ozenki salatu nahi dugu gaur hemen. Bide batez, lehengo alkateak gaude funtzioetan,

Udalaren ardurarekin. Baina jarduera normalizatua gartzeko ahalmena murriztua daukagu".

Egoera honen aurrean ere, "orain artean egin dugun bezala, gure herriaren eta herriarren konpromisoarekin aurrera" egingo dutela nabarmendu zuten. Konpromiso horrek, "EAJ eta EA-ri herri borondatea errespetatzeko exijitzera behartzen gaitu. Hau gauzatzeko formulak egon ba daudelako eta horien berri oso ondo dakitelako bi alderdi horiek". Konpromiso horrek, "bi alderdi horiek gobernaturiko Gipuzkoako Foru Aldundiari ere, gure herriarren borondateaz osaturiko Udalak bideratu eta onartu ditzala exijitzera behartzen gaitu", adierazi zuten.

Itsasondoko, Aizarnazabalgo, Hernialdeko, Irurako eta Leaburuko udalek irtenbidea behar dutela aldarrikatu zuten, "herriarren izenean, herri borondatean oinarritzen ez den beste biderik ez dugu onartuko".

Atxiloketak Zaldibian eta Zegaman

Urriaren 8an, goizaldean, Goierrin lau lagun atxilotu zituen Polizia Nazionalak, Baltasar Garzon epailearen aginduz: Zaldibian Bittor Garcia eta Itsaso Garmendia atxilotu zituzten eta Zegaman Naiara Landazabal eta Eneko Sorzabal. Inkomunikaturik egon ondoren, urriaren 10ean deklaratu zuten. Ondorioz, Zaldibian atxilotutako bikotea kartzelan sartzeko agindua eman zuen Garzonek, "ETA talde terroristako kide izatea" leporatuta. Soto de Realgo kartzelan sartu dituzte. Zegamako biak, berriaz, aske utzi zituzten Garzon epaileak deklarazioa hartu ondoren.

Atxiloketak salatze-ko mobilizazioak egin ziren Zaldibian.

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
943 88 51 68
ORMAIZTEGI

AMEBI



Sagardotegia

Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Asteburuko menu bereziak
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO



kutxa

gizarte ekintza

Emakume ekintzaileentzako enpresa kudeaketa ikastaroa

Goierriko Garapen Agentziak, Goiekik, emakumezkoen zuzendurik, enpresak sortzeko eta kudeatzeko ikastaroa antolatu du aurten ere. Azaroaren 10etik abenduaren 15era bitartean izango da ikastaroa, 9:00etatik 13:00etara. Negozio bat sortzeko ideia duten emakumezkoen zuzendua da, enpresa sortzeko eman beharreko urratsei buruzko informazioa emango baita bertan. Informazio gehiago, Goiekin, Ordiziako Industrialdeko 29.enean edo 943161831 telefono zenbakian.

Artisaualdiko irabazleak

Urriaren 11n eta 12an Ordiziako Majori kiroldengan izan zen Artisaualdia arrakastaz burutu zen aurten ere. Bertan izan ziren bi lehiaketaren emaitzak dira ondorengoak. IV. Miniaturen lehiaketa: 1. Iban Pascualen 'Exalibur' eta 2. Raxibi Tailerraren 'Loiolako santutegia'. Standen dekorazio dotoreenari emandako sarie-tan, hiru izan ziren irabazleak: 1.a Zarauzko Marraz-Marra; 2. Legazpiko Ttakun-Ttakun eta 3. Arrasateko Idoia Ibañez.

Orklin euskara plana aurrera

Orkli kooperatiba euskara planean murgilduta dago iaztik. Euskara ikastaroak eskaintzen dira enpresan bertan. Aurten dagoneko 26 lagunek eman dute izena, behe urratsetik hasi eta alfabetatze mailaraino. 'Ahoz aho' aldizkariaren 6 ale kaleratu zituzten iazko urtean eta aurten ere bide beretik jarraitzeko asmoa daukate.

Hain zuzen ere, azken alean emandako informazioaren arabera, euskararen ahozko eta idatzizko erabilera zenbatekoa den neurtu dute eta aldaketa nabariak daude. Ahozkoan, euskararen erabilerak gora egin du nabarmenki, bai aurrez aurrekoan eta baita telefonoan ere: elkarriketarak euskaraz, 2002an %38 eta 2003an %45,5; telefonoan euskaraz, 2002an %75 eta 2003an %85. Idatzizkoan, inprimakiak euskaraz betetzeko lehen pausoak eman dira: euskaraz 2002an %2 eta 2003an %26. Posta elektronikoan, hizkuntza nagusia gaztelera da, euskaraz gero eta gehiago egiten den arren: euskaraz 2002an %22 eta 2003an %35.



Asel Luzarraga, Xabier Mendiguren, Patxi Plazaola eta Juan Gastesi.

VI. Igartza literatur beka Asel Luzarragarentzat

Urriaren 3an jakin zen VI. Igartza literatur bekaren irabazlea nor zen: Asel Luzarraga Zarrabeitia bilbotarra. Gaur egun Bermeon bizi den gazteak 'Karonte' proiektua aurkeztu du lehiaketara. 6.000 euroko saria jasoko du: bekaren erdia, urriaren 3an jaso zuen; bigarren erdia, berriz, idazlana bukatutakoan. Julen Gabiria, Jasone Osoro eta Xabier Mendiguren Elizegik osatutako epaimahaiaren arabera, "zientzia fikzio arloa lantzen du idazlan-proiektu honek, ez etorkizun urrun bat imajinatu baizik eta hementxo eta gaurko gizartean gu konturatu gabe agian gertatzen ari diren gauzak irudikatuz. Badu komikiaren eta batik bat zinemaren eraginik (Matrix gogorarazten du plateamenduan), badu grazia eta arintasuna idaztean, badu sentsualtasun nabari bat ere. Euskal literaturan gutxi landu den estilo bat aberastu eta obra on bat lortuko duela espero dugu".

Sari emate ekitaldian, iazko edizioa irabazi zuen Julen Gabiriari sariaren bigarren zatia eman zitzaion, lana dagoeneko bukatua baitu. Otsail edo martxo aldera kaleratuko da liburua.

Antolatzaileak pozik

Beasaingo Udalak, Elkarlanean argitaletxearekin eta CAF enpresarekin elkarlanean antolatzen duen literatur beka da Igartza. Guztiak ere pozik daude literatur beka honek lortu duen arrakastarekin eta ematzekin. Igartza literatur bekari esker idazle berriak sortzen ari direla esan zuen Patxi Plazaola Beasaingo alka-teak. CAFeko ordezkaria, Juan Gastesi ere, pozik azaldu zen euskal literatura bultzatzeko ahalegin honekin.

OBRA PROIEKTUAK

Etxe berriak eraikitze
Birmoldaketak
Aktibitateak
Hirigintza

LDA arkitektura 649 95 94 14
GOIERI ETA TOLOSALDEAN

ZUZENKI
AHOLKULARITZA

Abokatuak
Enpresen
asesoria eta
gestioa

e txekin

www.txekin.net

Etxebizitzaren salmenta:

Legorreta
Beasain
Orendain

Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta: zuzenki@euskalnet.net Eloegi, 16 LAZKAO

Goierri Telebista hasi da lehenengo urratsak egiten

railaren bukaera hasi zen emititzen Goierri Telebista. Momentuz, kable bidez ikus daiteke bakarrik; hau da, Ordizian, Beasainen eta Legorretan Euskaltelen zerbitzua daukatenean bakarrik. S-11 sintonizatu behar da horretarako. Urriaren bukaera alderako, Usurben jarriko den antenarekin, ia Goierri osoan ikusteko aukera izango da.

Goikom enpresako Jabier Txurrukaren ideia, errealitate bihurtu da. Goiekik antolatu-tako Idea Berritzaileen lehiaketan aurkeztu zuen Goierri telebista sortzeko ideia duela bi urte eta erdi, eta lehenengo saria jaso zuen. Harrezkeroztik, Jon Aldonondo gabiriarrak eta Nuria Perez ordiziarrak daukate telebista mar-txan jartzearen ardura.

Goierriko informazioa euskaraz emititzeko hel-buruekin sortu da Goierri Telebista. Goierriko 18 herritako infor-mazioa: Altzaga, Ara-ma, Ataun, Beasain, Ga-biria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Le-gorreta, Mutiloa, Olabe-rria, Ordizia, Ormaizte-gi, Segura, Zaldibia, Ze-gama eta Zeraingoa. Jon



Oihana Sarasola kazetaria, Nuria Perez marketing arduraduna eta Jon Aldonondo zuzendaria. Asteburuetarako beste bi bekadun ere aritzen dira lanean.

Aldondo zuzendariak adiera-zi digunez, "goierritarrei zerbitzu berri bat ematera gatz Goierri Goierritarra aldizkaria eta Segura irratia baditugu, baina telebista fal-ta zen. Gainera Goierri oso leku ona da telebista bat egi-teko".

Goierri Telebistak 24 or-duko emisioa egiten du. Au-

tomatizatutako emisio digita-larekin, Goierriko gaiei bu-ruzko erreportaiak ikus dai-tezke, bata bestearen atzetik. "Lanerako erraztasuna ema-ten du sistema honek. Nahiz eta emititzen aritu, lan be-rriak kargatu ditzakezu, az-kartasuna ematen du, ez dago ordutegiaren zain egon beha-rrik. Egin ahala emititzeko aukera ematen du", dio Aldanondok.

Eguneko gertakizunak, kultura, kirolak, agenda eta teletestua eskaintzen ditu oro har Goierri Te-lebistak. Nuria Perez marketing arduradunak argitu duenez, "momen-tuan probako seinalea da. Udan grabatutako erreportaiak ikus daitez-

ke. Horiekin batera, egunero egiten joaten garenak. Poliki-poliki hasi gara. Aurrera be-gira eguneroko informazioa eskaintzeko aukera lantzeko asmoa ere badaukate, pro-grama egituratu batekin".

Teletestuaren zerbitzua ere eskaintzen du Goierri Tele-bistak. Musikaren laguntzaz, pantailan informazioa jartzen joango dira.

Aurrera begira asmo ugari dituzte baina nahiago dute momentuan "gutxi eta ondo egitea, asko eta baldar baino. Oinarri sendo bat egin nahi dugu, aurrera begirako proiektu bat izan dadila", gaineratu du Aldanondok.

Beasaindik Ordiziara

Senpere merkatalguneko bi-garren bulegoan du egoitza Goierri Telebistak. Urte amaierarako dena den, Ordi-ziako industrialdera joango dira, lokal handiago batera. "Ordiziako lokalera joan au-rretetik, ikasteko aprobetxatu nahi dugu, lanari neurria hartzeko".

Dena den, Goierri Telebis-takoen asmoa ez da platoan gelditzea. "Goierri ezaguta-razi nahi dugu eta ez da as-moa plato batean sartu eta dekoratu batean gelditzea. Lehenengo fase honetan ka-merak kalera atera behar di-tugu eta Goierri erakutsi", azpimarratu digute.



Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak



Landare haragijaleak hezeguneetako errege

Landare gehienek, bizitzeko behar dituzten elikagaiak lurzorutik eta atmosferatik hartzen dituzten arren, badira animalia txikiak janez beraien dieta osatzen duten landareak ere, landare karniboro edo haragijaleak alegia.

Filmeetan landare hauek predatzaile beldurgarri eta anker moduan aurkeztu dizkiguten arren, animaliak jatea, beraien bizi-erapenerako garatu duten estrategia bat baino ez da.

Landare haragijaleak hezeguneetan bizi ohi dira, zohikaztegi, aintzira eta zingiretan besteak beste. Ingurune hauetako lurzoruetan, nitrogenoan urriak izan ohi dira eta ondorioz, bertako bizidunek, ezin dute bizi-rauteko ezinbestekoak dituzten proteinak sortzeko behar adina nitrogeno eskuratu. Arazo honi aurre egiteko, nitrogeno-iturri alternatibo bat aurkitzea izan da landare haragijaleek egin dutena: animaliak irens-atea alegia.

Egun, 7 generotan banatuta dauden 600 bat espezie ezagutzen dira mundu guztian zehar banatuta eta hauetatik hiru aurkitu dira Euskal Herrian (Pinguicula, Drosera eta Utricularia generoak). Tamainari dagokiola, zentimetro bakar bateko landaretxoak zein hamar metroko espezie erraldoiak aurkitu dira baina lasai, txori bat baino tamaina

handiagoko animaliarik jan dutenik ez da oraindik ikusi. Gehienek, euli, inurri, sitsa eta eltxoen tankerako intsektuak harrapatzen dituzte. Harrapaketarako hainbat estrategia mota ezberdin garatu dituzte eta hiru multzotan bana daitezke: Tranpa aktiboak, erdiaktiboak eta pasiboak.

Tranpa aktiboak dituzten landareek, mugimendu bizkorren bidez harrapatzen dute harrapakina. Honen adibide dugu Euskal Herrian topa dezakegun Utricularia generoko landare haragijale urtarra. Uretan bizi diren krustazeo eta intsektu txikiak xurgatzen ditu poltsatxo batzuetara segundu bat baino denbora laburragoan.

Tranpa erdiaktiboak dituztenak ez dira hain azkarrak eta minutu bat inguru behar izaten dute jakia harrapatzeko. Landare hauek, luzakin itsaskorrez joriak diren hostoak izaten dituzte eta bertan harrapakina itsastea dute helburu. Ondoren hostoa intsektuaren inguruan biribilkatzen da intsektuak ihes egitea eragotziz. Modu honetako tranpak erabiltzen dituzte Euskal Herrian ditugun beste bi ordezkariak, Plinguicula eta Drosera alegia.

Drosera rotundifolia

Tranpa pasiboak dituzten espezieak mugiezinak dira eta hostoak luzakin itsaskorrez inguratuta dituzten arren, ez dira gai hostoa intsektuen inguruan biribilkatzeko.

Behin harrapakina harrapatu eta gero, landareak digestio-zukuak jariatzaren dituzte harrapakina dagoen lekura eta digestioa burutzean, landareak harrapakinaren sustantzia elikagarriak xurgatu ahal izango ditu bere beharrianak asetuz.

Orain arte, fikziozko hainbat filmetan landare haragijaleak gizaki-hiltzaile beldurgarri moduan aurkeztu dizkiguten arren, errealitatea bestelakoa da. Gizakiak, hainbat jardueren bidez, bizidun harrigarri hauen bizitoki diren hezegune ugari lehortu eta kutsatu ditu. Hori dela eta, landare hauetariko askoren biziraupena arriskuan dago. Bidezkoa ote?

Oihana Zubizarreta

JAKIN BEHARREKOAK

✓ **Hegaztien migrazioa aspalditik hasia bada ere**, ehizerako ohitura dela eta ikuspegi hortatik gehien motibatzen duten espezieen baitan ohartzen dira gehienak. Horrela, zozo, birigarro eta usoen pasearekin mugimendu migratzaileak jabetzen hasten da jendea, nahiz eta udaraz gerotik, hainbat eta hainbat hegaztik gure teilatuak zeharkatu dituzten. Dena den, eta usoaren kasuari eutsiz, badirudi urteen joanekin pase garaia atzeratzen ari dela, lehen pasa berri dugun Pilarika eguna izaten zen momenturik markatuenetarikoa...orain beranduxeagokoa dugu. Zer ikusirik izango al du planetaren berotze orokorrak?

✓ **Goimen Elkartetik landare hesien landaketaren interesa zabaldu asmoz**, hauek nekazaritza eta gizartean betetzen duten funtzioaz informatu asmoz Landarlan Elkartearekin batera hitzaldiak antolatu dira eskualdean. Bertan, diapositiba eta eredu desberdinak aztertuko dira eta honekin, interesaturik dauden artean, landaketarako diru laguntza eskaera jasotzen duen diptikoa banatuko da. Beraz, azti ibili zuen herritik edo ingurutik pasatzen garenean, merezi duela deritzogu!

Urriaren: bigarren loraldi batean dagoen Zuhandorren berri ematen da, bai eta Intsusaren fruitu belztuekin egiten den ardoa eta uken-duena ere, edo eta Elorri Zuriaren fruitu gorriekin egin daitekeen likore idor-garriaz...

"Zazpi generotan banatuta dauden 600 bat espezie ezagutzen dira mundu guztian zehar banatuta eta hauetatik hiru aurkitu dira Euskal Herrian"

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

Datorren astean jasoko du Irizar kooperatibak saria Belgikan 'Europako 2004. urteko autobusa' saria eskuratu du Irizar PB-k

Europako 15 aldizkari espezializatuetako adituek emandako saria da 'Europako urteko autobusa'-rena. 2001. urteko otsailean aurkeztu zuen Ormaiztegiako Irizar kooperatibak Irizar PB autobus berria. Dagoeneko mila autobusetik gora eginak dituzte. Datorren astean jasoko dute saria Belgikako Kortrijko azokan. Pello Urteaga, Irizarreko produktu berrien koordinatzaileak eman dizkigu Irizar PBren xehetasunak.

Zer esan nahi du sari hori lortzekak? Aurretik horrelako sariren lortua al zenuten?

Lehenengo aldia da sari hau eskuratzen duguna. Estatu Espainiarrean sekula ez du inork irabazi sari hau. Orain arte alemanek jaso izan dituzte sari hauek. Beraz, garrantzia handia dauka sari honek, esan nahi baitu, poliki-poliki gora iristen ari garela. Alemaniaren mailan jartzea zen gure helburua eta azkeneko urteetako ahaleginarekin ikusi dugu maila on batera iritsi garela. Baina berriz ere, konpetentzia gogorra izango da.

Lehenago ere gertu ibili ta geunden Centuryarekin. Baina nik uste dut egindako lanaren errekonozimendua dela sari hau. Eta gure bezeroei, egindako aukera ona izan dela erakustarazteko balioko du.



Pello Urteaga idiazabalarra, Iriziar kooperatibako produktu berrien koordinatzailea da.

Autobusetan, Estatu Espainiarren lehenengoak eta European bigarrenak zarete.

Europa mailan bi karrozerok osatutako talde indartsu bat osatu da: Mercedesek eta Kassbohrerek osatua. Evobus izeneko marka osatu dute. Izen handia dute eta bestetik produktu bezala ere onak dira. Talde hori oso garrantzitsua da Alemanian eta Europako herrialde batzutan. Bolumen handia daukate. Europatik kanpora ez dira hainbeste zabaldu. Baina Irizar mundu mailan gehiago zabaldua dago.

Bezeroentzat erakargarritasunik izango du sari honek.

Ni ez naiz marketingean aditua. Ni teknikaria naiz, produktua nola hobetzeaz arduratzen naiz. Baina nik baietz pentsatzen dut. Irizar PB autobusa beste merkatu handi batzuetan sartzen ari da, lehen iristen ez ginen lekuetan. Nik pentsatzen dut enpresa hauentzat garrantzitsua izango dela izendapen hau. Hori dena den, gerora ikusten da.

Espainiako eta Ingalaterrako autobusik onenaren saria ere jaso daukagu aurretik Centuryarekin, eta nik uste bere garrantzia izan zuela Ingalaterran. Poliki-poliki ikusten ari gara merkatu horretan liderrak bihurtzen ari garela.

Irizar Produktu Berria autobusak zer berezitasun dauka?

10 urtetik behin erabakitzen dugu produktu berria merkaturatzea. Asmatzeak izugarrizko garrantzia dauka beraz. Datozen 10 urteetako merkaturua aztertzen da: zer behar den, zein aukera dauden, zerk merezi duen garatzeak... Merkatu ikerketa egiten 6 nazio desberdinetan hasi ginen duela 5 urte. Adituekin ere harremanetan jarri ginen, hurrengo urteetako teknologia- ren garapena aztertzeke. Bezeroekin, mekanikoeekin, erabiltzaileekin... denekin jarri ginen harremanetan. Hortik ondorioak atera genituen. Lau zutabetan laburbildu genituen ondorio horiek: segurtasuna, erosotasuna, fidagarritasuna eta errentagarritasuna. Lehenengo biak, erabil-

"Estatu Espainiarrean sekula ez du inork irabazi sari hau"

tzaileei begira eta beste biak, erosleei begira. Proiektu honetan kanpoko aditu ugari- ke parte hartu zuten eduki genitza- keen hutsuneak osatzeko: ingeniari batek, eta marketing eta diseinu enpresa batek. Denen artean lortu genuen Irizar PB. Helburua beti ere, lehenengo autobusa, Centurya, hobetuz hurrengo hamarkada- ko exijentziak topatzea zen.

Hurrengo autobus berrirako ideiak hartzean hasiak izango zarete dagoeneko, ezta?

Hobetzea beti da posible. Gure kasuan talde zabala gara, gure gestio moduarekin jende asko daukagu inplikaturak merkatuan, eta behar eta aukera asko ikusten dituzte. Informazioa etengabeko jasotzen joaten gara.

Euskarazko izena du autobus modelo honek.

Horrek badauka bere zergatia. Proiektu honekin hasi ginenean, 'Produktu Berria 21' izendatu genuen. Proiektuko 3 urteak izen horrekin aritu ginen. Izena jartzeko garaian erabaki genuen, Irizar bezala ezagutzea nahi genuela autobusa. Orduan 'Irizar PB' izena jarri genion. Beste izen bat jarrita, batez ere nazioartean, Irizar galdu egiten da. Irizar izena produktuan ere agerian jartzea nahi genuen.

Irizar PB: Segurtasuna, erosotasuna, fidagarritasuna, errentagarritasuna

Irizar PB autobusa diseinatu zuten kontuan Irizar kooperatibakoek. Txoferraren eta bidaiaren segurtasuna eta erosotasuna, eta autobus eroslearentzako, fidagarritasuna eta errentagarritasuna. Jarraian dituzte, helburu horiek lortzeko egindako hainbat eta hainbat berrikuntza eta hobekuntza, Pello Urteagak laburbilduta.

Segurtasuna

Hiru elementu hobetu nahi izan dituzte:

- **Autobusak portaera hobe edukitzea deza errepedean.** Txoferrak errazago maneiatu dezala autobusa, seguruago sentitu dadila. Horretarako autobusak berak lagundu behar dio, errepedean estabilitate handia edukita. Estabilitate hori lau elementuk hobetzen dute: autobusaren grabitate zentroa beherago edukiz; kargak ardatz bakoitzeko ondo banatuz; egiturak duen zurruntasuna handituz, %30ean; eta aerodinamikak, autobusaren forma egokiak edukitzea haizeak gutxien eragiteko.

- **Gidatzeko orduan erraztasuna.** Segurtasunerako beste elementu garrantzitsu bat da, txoferrari autobusa erraz gidatzeko aukera ematea. Txoferrarentzat toki egokia diseinatu dute, espazioz eta ergonomiaz, txoferra nekatu ez dadin eta bere lana ahalik eta ondoen egin dezan. Beste elementu bat ere sartu dute: klimatizatzaile independentea.



tea txoferrarentzat. Autobusaren barruan bi temperatura ezberdin lortu nahi izan zituzten, erabiltzaileentzat eta txoferrarentzat, 3 graduko alde mantendu daiteke. Bestetik, txoferraren guneak inongo lurrinik izan ez dezan lortu dute. Bisibilitateari dagokionean, urrutirago eta intentsitate handiagoz ikus daitezkeen argiak jarri dizkiote Irizar PBri. Horrez gain, ispi lu ezberdinen bidez eta atzean jarrita dagoen kamara baten bidez, txoferrak, dagoen lekutik, autobusaren buelta oso-oso ikusten du. Aldamenetik etorri daitekeena ere bai.

- **Portaera hobe lortzea, istripua izandako garaian.** Horretarako egituraren zurruntasuna handitu dute %30ean; hau da, itzultzen den kasuan %30 indar gehiago edukiko du. Txokeari begira ere, %30eko erresistentzia handiagoa eman diote. Butakak nola lotuta dauden ere garrantzia

handia dauka: istripu bat gertatzen denean, butakak beraien lekuan lotuta gelditu behar baitute. Larrialdiko kasurako, autobusetik ahalik eta azkarren ateratzeko bideak ere erraztu dituzte.

Erosotasuna

- **Txoferraren erosotasuna.** Temperaturarena izan zen elementu garrantzitsu bat, haizea temperatura egokian berritzatzearekin batera. Txoferrarentzat espazioa eta ergonomia dira beste bi puntu garrantzitsuak. Txoferraren sarrera ere erraztu da, urrutiko mandoarekin bidaiariak sartu-irtenerako erabiltzen duten atea erabiliz.

- **Bidaiarien erosotasunari begira,** sarrerak eta irteerak oso garrantzitsuak dira. Irizar PBren txatxisak aukera ematen du muturra zertxobait jaistea, eskailararen aurreneko maila beheratuz. Jarlekuak ere ergonomikoagoak

dira, bai bizkarrean, bai oinarrian, eta funtzionalagoak. Barruko sentipena erosagoa izatea nahi izan zen. Horretarako, besteak beste, kolore erlaxatuak jarri dituzte. Forma ezberdinekin bolumen gehiago eman ere bai. Klimatizazioa ere oso garrantzitsua da bidaiarientzat. Beste hiru gai ere kontuan hartu dira: barruko hotsa eta bibrazioa gutxitzea, eta luzeraren zurruntasuna handitzea %80an.

Fidagarritasuna

- Irizarrek erabiltzen dituzten osagai eta materialak **azkeneko teknologia** aurreratukoak dira, kalitate hobe lortuz. Fabrikazioko prozesuak ere industrializatuagoak dira. Guzti horrekin, autobus osoak fidagarritasun handiagoa, berme handiagoa edukitzea dakar. Bezeroak ahalik eta arazo eta kexa gutxien izatea nahi da, ahalik eta errentagarritasun handiena atera diezaien autobusari, eta berriz ere Irizarra itzuli dadin autobusa erostera.

Errentagarritasuna

- **Mantenimenduko kostua gutxitu.** Horretarako, fidagarritasunean irabazi da eta bestetik, piezak aldakorragoak dira, industrializazioagatik. Piezak industrialagoak izateak, merketzea dakar.

- **Kontsumoaren gaia ere oso garrantzitsua da Irizarrentzat,** ingurumenari begira. Aerodinamikak eta pisuak erregaia-
ren kontsumoa gutxitzen laguntzen dute.



Eguraldi txarra izan zen protagonista Kilometroak egunean

Hala ere 70.000 lagun hurbildu ziren Lazkaora

Eguraldi txarra egin arren mila euskaltzale gerturatu zen Lazkaora eta hainbat lazkaotar eta goierritarrek ere gogorlan egin behar izan zuen dena ondo atera ahal izateko. Hori xe nabarmendu zuten bertaratuak, antolatzaieleek egindako lana eta zirkuituan zehar nabari zen garbitasuna. Aipagarria izan zen baita ere, zailtasun guztien gainetik antolatuta zeuden ekitaldi gehienak egin zirela.

Omenaldiak

Goizean omenaldia egin zitzaizen duela 40 urte Lazkaoko ikastolaren sortzaile izan ziren Jaxinto Fernandez Setien eta Aitor Murumendiaraz zenari eta ikastolako lehen

andereñoak izan ziren Mari Ixabel Aldasoro eta Mari Karmen Eizagirri. Beneditarrek, Maizpide eta Goierriko Euskal Eskola ere omenduak izan ziren euskararen alde egindako lanagatik.

Bi kontu korrante zabalik

Urriaren 5ean Lazkaora joaterik izan ez zutenak edo etorri arren ikastolari lagundu nahi dutenak ikastolara deika ari dira nola lagundu dezaketen galdetzeko. Diru-laguntza emateko borondatea duten guztientzat bi kontu korrante zenbaki ireki ditu San Benito ikastolak: Kutxako 21010381060011005253 eta Euskadiko Kutxako 30350063890630047761.



Elisa Lasa eta Jesus Mari Bujanda, Lazkaoko ikastolako hasierako ikasleak izan ziren zinta ebaki zutenak.



Argazkiak: Aitor Madrazo



Aterkiak eskuetan hartuta Miren Azkarate Kultura sailburua, Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburua eta Joxe Joan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako diputatu nagusia izan ziren Lazkaora inguratu ziren agintarietako batzuk.

OSKARBI ARROPA GARBITEGIA

Arropa industrial mota guztiak
Ostalaritza
Bezeroaren instalazioetan bilketa eta entrega
Partikularrentzat mantak, edredoiak, buzoak...

Leku-Eder etxea- Senpere auzoa-Lazkao
Tel.: 943 88 40 90 - 669 872 261

Aseguru korreduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE, S.L.

Elosgi, 1- behea
Tfnoa.: 943 88 86 20
Tfno. mugikorra: 609 49 14 41
Faxa: 943 88 91 18
LAZKAO



Ibilbidea ireki berritan ateratako hiru argazkietan ikusten den bezala, jendeak ez zuen eguraldi txarraren beldurrik izan.

Kilometroak eguneko zozketak

Autoaren zozketa

Kia Carens autoaren zozketan zenbaki saritua80.344
Hilabetearen saridunak agertzen ez bada berriro zozketatuko da.

Sarreraren zozketatutako sarien zenbakiak

Asteburua nekazal-turismo etxe batean	607
Ordiziako Zubibi jatetxean lau pertsonentzat afaria	825
Hiru pertsonentzat bidaia Port Aventura	1.967
Asteburua nekazal-turismo etxe batean	2.003
2 pertsonentzat marisko-jana Korta erretegi	2.739
Asteburua nekazal-turismo etxe batean	3.643
2 pertsonentzat La Perla talasoterapiarako sarrerak ...	9.943
Menuak euskaraz dituen Euskaltelen telefonoa	10.730
Asteburua nekazal-turismo etxe batean	11.896
Reala-Osasuna partidurako bi sarrera	15.026
Hiru pertsonentzat bidaia Port Aventura	16.666
Hiru pertsonentzat bidaia Port Aventura	27.877
Txirindularitzarako ekipazioa	31.294
Zeraingo Aterpetxean egonaldia eta bisita gidatua ...	33.241

Tonbolan saritutako zenbakiak

Lance Armstrong-ek sinatutako mailota	748
Janari lote eder bat	1.933
Ordiziako Martinez jatetxean 2 lagunentzat afaria	2.476
Errealeko Aranburuk sinatutako kamiseta	2.532
Alzagako Olagi sagardotegian 4 lagunentzat afaria ...	2.905
Indurainek sinatutako mailota	3.543
Olaberriko Zezilione jatetxean 2 lagunentzat afaria ..	4.485
Joseba Belokik sinatutako mailota	5.071
Athletic futbol taldekoek sinatutako kamiseta	8.322
Errealeko Aranzabalek sinatutako kamiseta	9.885
Ezkioko Argindegi jatetxean 2 lagunentzat afaria	9.886
Errealeko Gabilondok sinatutako kamiseta	10.777
Txirindu bat	11.656
Mandubiako bentan 2 lagunentzat afaria	12.457
Menua euskaraz duen Euskalteko mugikorra	12.508
Gabiriako Aztiria erretegi 2 lagunentzat afaria	12.645
Beasaingo Rubioren jatetxean 2 lagunentzat afaria ...	14.960
Aimar Olaizolak sinatutako kamiseta	16.009
Asteburu bat Segurako Ondarre nekazal-etxean	17.163
Txirindularitzarako ekipazio oso bat	18.467
Euskaltel taldekoek sinatutako mailota	18.915
Lierniako Mujika jatetxean 2 lagunentzat afaria	19.029



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Joxe Mari Jauregi eta Eli Gorrotxategi artzainak: "Gure gustuak ahaztu eta jende gehienari nolako gazta gustatzen zaion jakin behar da"



Forjako lana utzi eta artzain

Joxe Mariren ama Ilarduikoa da eta aita, Prontxio Jauregi pilotagilea, zaldibiarra zuen. Txikitandik izan zuen Ilarduia-
ra joan eta bertan abereekin lanean aritzeko joera, ardiak,
ahuntzak, behorrak... 18 urterekin Lazkaon forjan lanean ha-
si zen eta 16 urte egin zituen bertan. Baina, ardiak Araban zi-
tuen eta egunero bueltaka ibiltzen zen. "Nire helburua art-
zaintzatik bizitzea zen eta azkenean Eliren laguntzarekin
lortu nuen. Zenbaitek esaten zuten erotuta nengoela lantokia
utzi eta artzain hasteagatik eta hasiera beti gogorra izaten
den arren aurrera atera gara", dio Joxe Marik.

Elik, berriz, Beasaingo Gorrotxategi gozotegiko alabak,
inoiz ez zuen artzaintzarekin harremanik izan. "Joxe Marik
hau dena oso gustukoa zuen eta ilusio handiarekin hasi gi-
nen. Hasieran esnea saldu egiten genuen, bi seme genituen
eta nahiko gaizki genbiltzan. Hori ikusita gazta egiten hasi
ginen, ikastaroak eginez eta beste artzainen laguntzarekin
aurrera egitea lortu genuen", azaldu digu Elik.

Bi seme dituzte eta zaharrena Arkauteko nekazaritza es-
kolan ari da ikasten. "Ez dut uste semeak bulego batetan la-
nean arituko direnik. Gustukoa dute abereekin lan egitea",
diote.

Lazkaotarra da Joxe
Mari eta beasaindarra
Eli. Arabako Ilarduian

aritzen dira artzain.

Eginoko eskaladako hormen
ondoan dagoen Lezetik oso
gertu. Gazta lehiaketetan
mutur-muturrean ibiltzeaz
gain, artzain txakur
lehiaketetan ere halaxe
dabilta. Bolada bikaina
beraiena.

- Gaztekin sari asko ari zarete
irabazten. Ordiziako txapelketan
azken urteetan finalean sartu za-
rete.

- Bai, horretan ere bolada
ederrean gaude. Urte batzuk
daramatzagu sariak jasotzen.
Eta Ordiziakoa irabazterik
lortu ez badugu ere azken ur-
teetan lehen bostetan sartu
gara eta aurtien bigarren egin
dugu. Zenbaitek urte batean
irabazi dute eta ez dira gehia-
go azaldu, guk, berriz, irabazi
ez arren erregulartasuna era-
kutsi dugu eta hori garrantzi-
tsua iruditzen zaigu.

- Saria jasotzera beti Eli igotzen
da.

- Berak egiten du gazta eta.
Nik zakurrarekin irabazitako
sariak jasotzen ditut.

- Sari handia jasoz gero, biok
igotzen gara.

- Sariak jasotzeak zer esan nahi
du, gazta ona jasotzen duzuela
ala epaimahaiaren gustua ezagu-
tzen duzuela?

- Epaimahaia aldatu egiten
da, beraz beste zerbait izango
da. Guk dastatze ikastaroetan
parte hartzen dugu eta horrela
ikasiz goaz. Niri zein gazta
gustatzen zaidan ahaztu eta
jende gehienari zein motata-
ko gazta gustatzen zaion ja-
kin behar da. Asko probatuz
zein desberdintasun dauden
ikasten duzu. Geuk ere ez di-
tugu gazta guztiak berdinak
egiten, bezeroen gustuen ara-
bera fuertegoak edo xuabea-
goak egiten ditugu. Lehiake-
tetara gure ustez punturik
onenean daudenak eramaten
ditugu. Adibidez orain Ber-
garan San Martin azokako
lehiaketa irabazi dugu eta
gazta Ordiziara eramán ge-
nuenaren ezberdina da.

Gaztaren eboluzioa ere ez-
berdina da. Aurreneko gaztak
eta bukaerakoek bilakaera
desberdina izaten dute, esnea
desberdina da; hozkailuko
egoera ere ezberdina izaten
da, nahiz eta tenperatura eta
hezetasuna kontrolatu gazta
gehiago egoten hezetasuna
igo egiten da... Lehen esaten
zen gazta onenak maiatzeko-
ak zirela, bada gure ustez
otsaila, martxoa eta apirileko-
ak hobeak dira, esneak ez du

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTHROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ezk. - BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



Eli Gorrotxategi aurtengo Ordiziako lehiaketan bigarren saria jasotzen.

hainbeste koipe eta finagoak ateratzen dira. Gazta bera ere erabat aldatzen da bi hilabete edo sei hilabete izan.

- Idiazabal izendapena duzuen artzainok ondo saltzen al duzue gazta?

- Izendapena laguntza handia da baina, azkenean, zeuk saldu behar duzu gazta. Guk zazpi urte daramatzagu gazta egiten eta pixkanaka geure merkatua egiten joan gara. Urtez urte gazta gehiago egiten ari gara eta dena saltzen dugu. Guri kanpaina bakoitza hurrengoarekin lotzea gustatzen zaigu. Gazta egiten urtarriaren bukaeran hasten gara eta Santiagotan bukatzen dugu. Gazta bi hilabetez hozkailuan egon behar da saldu aurretik, beraz, martxoaren bukaeran hasi gintezke berriak saltzen. Daukagun gaztarekin hurrengo kanpainara arte irauteko modua ikusten dugunean azoketara joateari uzten diogu, hozkailuak garbitu eta gaztak enbasatu egiten ditugu. Bestela ere urtean zehar azoka berezietara bakarrik joaten gara, ez gara asteroko azoketara joaten.

- Non saltzen duzue gazta gehien?

- Gehiena etxetik bertatik saltzen dugu. Lehen inork ez ze-

Bizkor txakurrarekin txapeldun

- Nolako txakurra da Bizkor?

- Bi euskal artzain txakur mota daude, Gorbeiakoa eta iletsua, gurea Gorbeiakoa artzain txakurra da. Bizkorrek 4 urte ditu, aita gurea zen eta ama Zeraingoa. Hilabete eta erdirekin ekarri genuen eta orain lau urte eta erdi ditu. Oso esanekoa izan da txiki-txikitatik, segituan ikusi genion balio zuela. Bi hilabeterekin hasi zen ardien inguruan, baita niregana etorri eta beti nire ondoan ibiltzen zen. Aita ere oso ona izan da baina orain zahartuta dago eta gutxi ibiltzen gara.

- Zergatik Gorbeiakoa artzain txakurra?

- Niretzat gogorragoak eta esanekoagoak dira, oso egokiak honako. Orain border collie arrazakoak ere asko ari dira sartzen, hauek ere oso txakur onak dira baina nik nahiago dut bertako arrazakoa izatea. Border collieak urte asko daramatzate arraza hobetzen eta garbi dago gu baino aurreratuagoak daudela horretan baina border onak eta border txarrak daude. Hemen orain arte edozein txakurrekin nahasketak egin dira eta orain hasi da arraza zaindu eta hobetzen.

- Lehendik artzain txakur txapelketetan ibiltzen al zinen?

- Argirekin hasi nintzen 94an. Gero Azkarrekin, Bizkorren aitarekin, Arkaitz gure semea Arabako txapeldun geratu zen duela 3 urte. Duela bi urte Bizkorrekin hasi eta bigarren geratu nintzen Arabako txapelketan, iaz Arabako txapeldun, Euskal Herriko bigarren eta Oñatin hirugarren izan ginen eta aurtun Arabakoa eta Oñatikoa irabazi ditugu eta Euskal Herrikoan hirugarren geratu gara.

- Nola trebatzen da txakurra?

- Hiru edo lau hilabeterekin hasten gara ardiekin eguneroko lanak egiten. Ez dugu ezer berezirik egiten. Txapelketa gerturatzen denean banderak jarri eta lantzen dugu txakurra ohitzen joateko. Mendian ere ikasten joateko

kien hemen geundenik, baina, batzuk egun pasa etortzen dira, besteak eskalatzera eta pixkanaka bezeroak egiten joan gara.

- Non ibiltzen dituzue ardiak?

- Mendian Altzania aldean

ibiltzen dira. Hemen bertan daude Olano eta Agiñaran, Gipuzkoako muga. Eguraldi txarrarekin jaisten dira baina bestela goian. Elur asko egiten ez badu abendura arte mendian ibiliko dira. Gero urtarrian arkumeak jaiotzen

dira. Arkume hauetatik hazia jarritakoak uzten ditugu aurrerako aita eta ama ezagunak dituztenak. Genetikaren hobekuntzan aspaldidanik ari gara lanean. Hori dela eta ardi kopuru berarekin urteko ekoizpena handitzen ari gara.



ardietara zuzenean bidali gabe arbola artetik edo zeharka bidaltzen dugu. Egun osoa nirekin pasatzen du eta beti adi egoten da niri begira. Txakurrak lan asko kentzen dit, ez dut mendian gora eta behera ardien atzetik ibili beharrik. Askotan ni etxetik mugitu gabe txakurrak ardiak menditik jaisten ditu. Hori oso garrantzitsua da niretzat.

- Jende aurrean asko aldatzen al da txakurraren jarrera?

- Batzuen bai. Bizkor ez da asko aldatzen. Zenbait txakurrekin gertatzen da txapelketa askotan parte hartu ondoren harrotu egiten direla, beraiek nahi duten bezala egin nahi izaten dute. Adibidez, Azkar etxeko lanetarako oso ona zen baina jende aurrean harrotuta jartzen zen. Txapelketan zerbait gaizki egiten badu oso gaizki dago errieta egitea eta hortaz konturatzen direnean alferrik izaten da aginduak ematea. Hori gure errua ere bada, gazteegi hasten ditugu txapelketetan eta nik uste dut 3 urterekin edo txakurra heldu arte ez dela hasi behar.



Gipuzkoako txapelketa jokoa

Orain bi aste San Migeletako finalak jokatu ondoren federatu guztiak buru belarri jardun dira txapelketa honetarako. Baina Gipuzkoa mailan jokatzen da Kluben Artekoan, maila ezberdinetako pilotariak ditugu sarturik. Denera, zazpi bikote dira, bakoitza bere ordekoarekin.

Gazteenak kadete mailakoak dira baina bi maila ezberdinetan, bata kadeteko 3. mailan eta bestea 2. mailan. Jubeniletan ere bi bikote ater dira eta nagusietan berriz hiru, nahiz eta hauetako bat 3. mailan egon. Dagoeneko partidua jokatzen ari dira eta emaitzak ikusiz aurreratu edo ziurtatu dezakegun gauza bakarra gazteenak doazela hobekien sailkatuak, denak irabazi baitituzte. Txapelketa hau urriaren hasieran hasi zen eta amaiera abendu bukaeran izango da. Partidua jokatu

ahala informazioa ematen joango gara hurrengo aleetan.

Pilota eskola

Nahiz eta orain arte jendetza handia izan pilota eskolan oraindik libre dago izena emateko epea. Honetarako kiroldegiko bulegoan eman beharko da izena. Lehenengo aldiz izena ematen duenak, inskripzio orria bete beharko du. Joan zen urtean Unai Urretabizkaia izan zen lan guzti honen arduraduna baina lanagatik urtarilerara arte ezin izango du egon. Honen ordezkoa Lizartzako Axier Mintegi izango da.

Futbola

Pasa den astean jubenilak jai egin bazuten ere, infantilek eta erregionalek beraien partidua jokatu zituzten. Zoritarrez bi taldeek galdu egin zuten.

Arau subsidiarioen berrikuspena

Udaleko hiri-plangintza gaur egungo premietara egokitzeko asmoz, Lazkaoko Arau Subsidiarioak berrikusteko prozesuari ekin nahi dio. Hiri-plangintzak udalerriaren garapenerako duen garrantziaz jabetuta, guztiz interesgarria eta komenigarria egiten da prozesu honek dirauen bitartean nahi duten lazkaotar guztiek bidezko zat jotzen dituzten ekarpenak eta iradokizunak egitea. Horrela, bada, datorren urriaren 28 arte nahi dituzten ekarpenak, iradokizunak eta proposamenak egin ahal izango da, horretarako bidali dira etxetara Aurrelaburpena. Hau Udaletxean izango da.

Horrela, Aurrelaburpenaren jendaurreko erakustaldian egingako proposamenak jaso eta analizatu, aztertu eta erantzun ondoren, behin betiko dokumentua idatziko da. Dokumentu hori, halaber, jendaurrean jarriko da nahi dutenek beren iritzia adierazteko aukera izan dezaten. Bertako gaiak: etxebizitza, garapen ekonomikoa, azpiegiturak, ekipamenduak eta espazio libreak... jorratuko dira.

Aitor Tello

Infantilek kanpoan jokatu zuten larunbat goizean. Arratsaldean zaharrenek jokatu zuten. Aurkariak idiazabaldeak ziren eta partidua oso borrokatua suertatu zen azken momentura arte. Azken txanpan aurreratu ziren kanpotarrek eta partidua horrelaxe geratu zen 0 eta 1-eko emaitzarekin. Aste honetan berriz Lasartera joango dira. Partidua larunbat arratsaldean

izango da.

Areto futbola

Harrigarria bada ere 6 eta 2 irabazten joan ondoren partidua berdindurik amaitu zuten Errotaundiko mutilak. Aurkariak Zarautzarrak ziren eta honekin partidua bat irabazi eta bestea berdindurik daramate. Hurrena larunbat arratsaldean jokatu dute etxetik kanpo.



Gaztarik onena, Mutiloakoa

Tolosan egin zen Euskal Herriko XVII. Gazta lehiaketan Gaztinadi-errotako Kontxi Aldasorok irabazi zuen lehenengo saria. Lehiaketa honetan parte hartzeko, gutxienez 100 ardi izan behar dira eta artzainak berak egindako

gazta izan behar du. Guztira 41 gazta aurkeztu ziren lehiaketara, 27 Gipuzkoatik, 9 Arabatik eta 5 Nafarroatik, eta esan bezala, gure herrikoak irabazi zuen. Zorionak beraz.

Vasco-Navarro Rallya

Urriaren 4an pasa zen gure herritik automobil proba hau eta herritar eta bisitari ugari hurbildu ziren herrira eta Lierniko bihurguneetara. Eguraldiak gehiagi lagundu ez bazuen ere, ikuskizun ederra ikusteko aukera izan zen.

Santu Guztien eguneko ospakizunak

Azaroan izango diren elizkizunak honako hauek izango dira. Azaroaren 1ean goizeko

elizkizuna 12:30ean izango da eta arratsaldekoa 16:00etan izango da.

Iñaki Ugaldé



Arrigain, S.L.

Askatasunaren etorbidea, 1-1.A

DONOSTIA

Tel.: 943 450 666

Berehala BEASAINen

SENPERE MERKATALGUNEAN, 36. bulegoa

Tel.: 943 805 033 Faxa: 943 805 031 Poltsikokoa: 687 965 354



ORDIZIA: Pisu ederra. 2 logela, egongela, bainugela eta sukalde-jangela.



ORDIZIA: Erdigunean. 137m, 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela eta kanpoko despentsa, igogailua.



ORDIZIA: Pisu 70 m, 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, eguzkitsua, garaje konpartitua.



ORDIZIA: 3 logela, sukaldea, bainugela, egongela. Dena berritua, prezio interesgarria.



ORDIZIA: 58 m-ko pisua, berritua, kanpokaldera, 18.000.000.

ORDIZIA: 75 m, erdigunean. 3 logela, sukalde hornitua, egongela, bainugela, berogailua, igogailua.



BEASAIN: Pisu erdigunean, 105 m. 3 logela, egongela, sukalde hornitua, 2 bainugela eta trastelekua. Prezio interesgarria.

ZEGAMA: 80 m-ko pisua. 3 logela, sukaldea, bainugela, egongela eta trastelekua. 15.000.000



TOLOSA: 60 m-ko atikoa. 2 logela, egongela-jangela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. Prezio interesgarria.



TOLOSA: Aukera ederra. Pisu, 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Kanpokaldera, 30.000.000.



TOLOSA: Etxebizitza adosatua, 170 m. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainu, lora-tegia, garajea, txokoa eta trastelekua.



ZUMAIA: 58m-ko pisua. 3 logela, egongela-sukaldea eta bainugela. Altzairuekin, bizitzeko moduan.

Goierri etxebizitzak behar dira salgai edo alokairuan



ERAIKITZEN

2 eta 4 ETXEBIZITZAKO ETXEA 18 HILABETETAN PREST

PROMUEVE LEKUSOL, S.L.
VENDE ARRIGAIN

ASTEASAU: Eraikitzen ari diren, bizitza bakarreko eta 4 bizitzako etxeak. Naturaren erdian kokatuak. Informazio zabala gure bulegoetan. 943 450 666

Jatorrizko euskal animalien IV. erakusketa

Urriaren 19an izango da jatorrizko euskal animalien IV. erakusketa. Ormaiztegitarrek baita bertara gerturatzen direnek ere egun guztian zehar hainbat ekitaldi izango dituzte.


10:00etan: irekiera ofiziala. 10:00etatik 14:30era bitartean jatorrizko euskal animalien espeziez osaturiko erakusketa zabalik izango da.

Gune bakoitzean megafo- niaren bitartez elkartekideek euskal animalien espezie bakoitzari buruzko argibide zuze-

nak azalduko dizkiete bertara hurbilduko diren ikusleei. Elkarre bakoitzak jatorrizko euskal animalien espezieetatik ekoizturiko produktuak salgai jarriko ditu. Trikitilariak alaituriko giroa izango da. Pottoken gainean eta Gipuzkoako asto-zaleen elkarteko astoei jarritako otarretan pasatzeko aukera izango da.

11:00etan: Betizu, terreña eta pirenaiken aurkezpena egingo da.

11:30etan: Euskal Herriko erreleu elkartekideek Euskal



Beste hainbat espezieen artean argazkikoak bezalako betizuak ikusi ahal izango dira.

Herriko erreleuaren aurkezpena egingo dute. Ele elkartekideek latxa ardiena eta Gipuzkoako asto-zaleen elkartekideek Enkarterrietako astoarena.

12:00etan: Pottoken aurkezpena, lehiaketa morfologikoa eta sari banaketa egingo dira.

12:30etan: Euskal Oilo Elkartekideek ekoiztu eta bertan erreleu diren euskal oilaskoak

dastatu eta oiloarekin prestatutako salda hartzeko aukera ere izango da bazkal ordurarte.

14:30etan: Partaideentzat bazkaria.

17:00etan: Pottoka eta terreña arteko dema 500 kiloko lehiarekin zelaiean.

18:00etan: Zaldi lasterketa.

Ikuskizun aparta Rally Vasco-Navarron

Pasa den urriaren 4an, larunbata, Rallye Rac Vasco Navarra pasa zen Zeraindik. Eurria izan zen protagonista nagusi goiz guztian zehar, baina hala ere jende dezente bildu zen Zeraingo zati ikusgarrian. Burrunba eta zarata izan ziren nagusi eta jendea ere berotu zen motor hotz eta kotxeen abiadurarekin. Zeraingo herri barrutik igarotzen ziren auto

guztiak eta benetan zati arriskutsu bezain teknikoa da hau. Baina pilotuek beraien trebezia erakutsi zuten eta inongo arazo larrik gabe igaro ziren. Hala ere, susto bat baino gehiago izan zuten partehartzaileek nahiz ikusleek.

Hemendik bi urtera igaroko omen da, agian, berriz ere rallye hau gure herri- eta ordurako Europako txapelke-

Ehiz garaia hasi da

Udazkenean sartuta, herrian hainbeste zale dituen ehizaren garaia ere iritsi da. Herriko Larrantxo mendian dauden uso-puestotara joan ahal izateko, txartelak iluntzero Liztormendi elkartean banatzen dira. Beraz, puesto horietara ehizara joan nahi dutenak, soziedadera joan beharko dira aurreko eguneko iluntzean, txartelak jasotzera.

Medikuaren oharra

Gripearen aurkako txertoa hartzeko kanpaina urriaren 31ra arte dago irekita. Beraz, oraindik txertoa hartu ez dutenek ordura arte dute aukera, hala nahi izanez gero, medikuarengana joanda.

taren barnean kokatu nahi omen dute. Zurrumurruak baino ez dira oraindik, baina agian Zerain izango da Goie-

erriko kotxe karreretako "Monaco".

Jon Muñoa



Euskara Elkarte eta herri aldizkaria abian

Proiektua oraindik gauzatu gabe dagoen arren, duela hila bate batzuetatik Idiazabalgo Euskara Elkarte sortzeko asmoa eta ekimena aurrera doa. Herriar talde batek egindako bileretatik, Elkarte berriaren lehendabiziko zeregina zehaztu da, herri aldizkaria egitea.

Udaberrian, herritar multzo batek bultzatuta hasi zen Euskara Elkarte sortzeko ekimena. Idiazabalgo batzuei eta herriko talde, elkarte, eta erakundeei egin zitzaizkien lehendabiziko bilerarako gonbitea. Bilera hartan, Euskara bultzatu eta indartzeko zerbait egin beharra zegoela bat etorri ziren guztiak, eta aurrera jarraitzea erabaki zuten.

Irailean egindako azkeneko bileran Euskara Elkarte sortu eta arlo batzuetan lanean hasia pentsatu zuten taldearen bultzatzaileek. Ideiaren berri emanez idatziak banatu dituzte etxe guztietara.

Euskara elkartearekiko konpromiso eta lotura bakarra euskara bera dela dio oharrak. Era berean taldeak pentsamendu eta era guztietako idiazabalarrak biltzen dituela azpimarratzen da.

Euskara Elkarte berriaren lehendabiziko lana, talde modura sortzea izango da. Ondoren, herri aldizkaria bultzatu nahi dute. Herriko albisteak eta kontuak euskaraz zabalduko dituen tresna horren bitartez, euskaraz irakurtzeko ohitura bultzatu nahi dute.

Hau guztia martxan jartzeko, Euskara taldeari babesa emango dioten bazkideen bila ari da elkarte berria. Bazkide-tza nolakoa izango den erabaki gabe dute. Horretarako eta jendearen iritzia jasotzeko, taldeko hiru lagun hauengana jo liteke: Eider Alustiza (605 723 778), Miren Maioral (943 18 74 53) eta Irune Urteaga (680 820 121).

Xabier Urteaga

Aldaketak KZ gunean

Aurrerantzean Pilarreneako KZ gunea herritarrek bere kasa erabiliko dute. Ordenagailu gelak orain arteko zerbitzua eskainiko du, baina ez da arduradunik egongo. KZ gunea goizeko 9,30etatik iluntzeko 8etara egongo da zabalik. Pilarreneako ganbarara igotzeko atea itxita baldin badago, bertako tabernan egongo da giltza. Erabiltzaileak piztu eta itzali beharko ditu ordenagailuak.

Astean behin, ostiraletan, arratsaldeko 6etatik 8etara Lorea Ezizola egongo da KZ gunean, zalantzak argitu edo informazioa emateko. Astean zehar ondoko telefonoetan egongo da 943 801 866 eta 943 160 238.

Idiazabalgo KZ gunea ireki zutenetik urte eta erdi pasatu da. Tarte horretan 250 herritarrek eman dute izena.

Zuzenketa

Aurreko alean, Agerreko ermita berritzeko 35 milioi pezeta erabili zirela agertzen zen. Kopuru egokia 35 mila euro (ia sei milioi pezeta) da.

Konponketak Etxegaraten

Errepide berria ireki zutela urte erdi pasatu da eta makinak bidea konpontzen ari dira dagoeneko. Udatik, Gasteizerako norabidean, eskuineko karrila egoera txarrean dago. Leku batzuetan zuloak daude eta errebueltak txikitik Etxegarate gaina bitarteko zatian, kamioiak pasatzen diren lekuetan sanguneak daude.

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko lantak
filtroak, olioak, engraseak
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

☎ 943 18 72 57



Iñauti
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zaki KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28



GEURIA
ALUMINIO AROZTEGIA

Zubi termiko hausturak
leihoak
Bulego eta bainuetako
manparak
Ateak, erakusleihoak eta
balkoiak

943 880 162
Iñauti Ind. 14
OLABERRIA

ARRIETA

JATETXEA

☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

Xabier, herriko apaizari agurra

Egun gutxi barru Xabierrek Ataun herria utzi egingo du. 38 urtez herri honetako hiru parroketan jardun ondoren iritsi zaio agur esateko unea.

22 urte egin zituen Ataungo Parrokian, horietatik 17, Don Frantziskoren laguntzaila modura igaro zituen eta beste 5 urtez San Martin Parrokiko Bikario izan zen.

Jexux Jauregi San Martin Bikario izan zeneko garaian, asteburu eta beste hainbat egunetan ere, lanean aritu zen beste 10 urtez.

Jexux zendu zenean urtebetez egon zen Xabier San Martin eta San Gregorioko arduradun. Orduan Andoni Urreiziti izendatu zuten hiru Parrokietako arduradun eta garai horretan ere, 2 urtez, alboan egon zen Xabier.

Azken 3 urteetan, Andoni Urreizitiren hutsunea betez, Ataungo hiru Parrokietako Bikario izan da.

Hainbeste urteetan eginiko lana eskertzeko, Parrokietako Kontseilukoek, Xabierri beren esker ona adierazi eta agertu asmoz, urriaren 18 eta 19an meza ospakizunak antolatzea erabaki dute Gotzaina bera ere tartean izango delarik.

Aian urriaren 18an, arratsaldeko 6etan izango da meza.

San Gregorion urriaren 19an, goizeko 10,30etan izango da meza.

San Martinen urriaren 19an, eguerdiko 12,30etan izango da meza.

Bertaratzeko gonbitea herriar orori zuzentzen diote

Kontseilukoek. Urriaren 19an mezaren ondoren, bazkaria izango da Bittor jatetxean eguerdiko 14.00etan. bazkaria joan nahi duen edonork txartelak aldeztu aurretik erosi behar izan ditu, horretarako epea urriaren 13, astelehenean amaitu baitzen. Kontseilukoek adierazi dutenez, txartelak bazkari aurretik jasoko dira, beraz bertara eramatea ezinbestekoa izango da.

Bestalde aipatu, Ataungo hiru Parrokietako arduradun berriak Juan Mari Olaetxea eta Koldo Intxausti izango direla. Ataungo Parrokiez gain, Lazkao eta Olaberriko Parrokien ardura ere izango dutelarik.

Azken batean, ekitaldia Xabierri agur esan eta datozen berriei ongiatorria emateko aprobetxatuko dute.

Aipatu baita ere, hiru parrokietako Kontseiluak adierazi digunez, San Martin Elizako lehen faseko obrak amaitutzat eman dituzte. Esker ona adierazi nahi diete, Diputazioari, Gotzategiari eta beren laguntza eman duen eliztar eta herritar guztiei ere. Obra horien ordainketa guzti hauei esker lortu dutelako.

Era berean, aipatu, bigarren faseari ekiteko asmoa ere badagoela, hau da, eliz barrua berritzeari ekin nahi diete. Itxaropena badute, datorren urtean Diputazioak laguntza eskainiko dielakoan, horrela ez balitz aurrekontua osatzeko, berriro ere eliztar eta herritarrengana zuzenduko lirake. Beharrean aurkitzen direnean adieraziko dute.

Doltza Barandiaran



Ibain Urdangarin bikain

Irailaren 26an ekin zioten aurtengo Gipuzkoako Bertsolari Txapelketari, tartean bi herritar aurkeztu direlarik: Iban Urdangarin eta Joxe Munduate.

Biek ala biek ere, ostiral horretan ekin zioten abiada hartu duen eta geldidara ezina den lasterketa honi. Zaldibian izan zuten lehen fasea eta sorpresa ederra eman zuen Iban Urdangarin gazteak, bera baita momentu honetan lehen fase honetan puntuaketarik altuena lortu duen bertsolaria (287 puntu) Ekaitz Goikoetxearen atzetik (313'5), Joxe Munduate ere ez zen gaizki ibili 264 puntu lortu baitzituen. Munduate beteranoa baldin badugu txapelketa honetan, ezin gauza bera esan Ibain buruz. Lehen urtea du Iban Urdangarinak Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan, oraina arte Eskolarteko Txapelketetan ibilia da, goierriko taldean lehenik eta azken 4 urteetan bakarka. 18 urte bete dituen, mailaz igotzea tokatu zaio aurrean eta ez dio batere gaizki ekin txapelketa berriari.

Zaldibiako saioan kiniela guztiak hautsi zituen Urdangarin; faboritoen artean Alfontso Jimenez, Bixente Gorostidi eta Joxe Munduate ageri ziren, eta ataundar gazteak hirurak atzean utzi zituen.

Ibanek berak adierazi digunez, 10eko txikian aritu zen erosoena. Oso gustura dago egindako lanarekin, hasiera batean Txapelketa honetara esperientzia berri bat frogatu asmoz aurkeztu bazen ere, lehen fasea oso ondo atera zaio eta harro sentitzeko moduan dago.

Aurreko astebukaeran, hilaren 12an kaleratu zen bigarren fasera igaroko diren 26 bertsolarien izenak eta horien artean ageri da Iban Urdangarin. Izen handiko aurkariak ageri dira Txapelketa honetan eta bidea erraza izango ez bada ere, Iban aurrera egiten saiatuko da.

Odol beharrean daudenekiko eskuzabaltasuna

Datorren urriaren 21ean asteartean, iluntzeko 7etatik 9etara Gabillenen odola emateko aukera egongo da.

Astebukaerako jardunaldiak

Astebukaera honetan Ataungo areto futboleko aritzen diren mutilek eta neskek beren partidak etxean jokatu dituzte. Maila autonomikoan jokatzeko mutilek, Ataun Avia taldeak, Clinica Dental Aldaz taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak. Neskei dagokionean berriz, Ataun Bitor Jatetxeak ABX Logistic izan du aurkari. Esan bezala, bi partidak etxean jokatu dira, Auzoeta Kiroldegian.



Ardiki eguna urriaren 25ean

Ardiki egunerako egitaraua prest dago. Aurten gogoratu, larunbatean ospatuko dela, urriaren 25ean.

9:00etan: Diana herriko txistulariekin.

10:30etan: Herrian zehar prestatu den ibilbidea zabalduko da, Hernaniko Musika Eskolako Taldea musika taldeak alaiturik. Bertan hainbat erakusketa ikusi ahal izango dira: argi indar, errota eta okindegiko tresnerien erakusketa fabrikari; Andere S. Coop. enpresaren lentzeria erakusketa Bide Zaharreko Zubian; kanpai, argi indar, errota, e.a. erakusketa Karrera Enean. Artisautza erakusketa. Artzaia gazta, artille, edo galtzerdi egiten Fede Donea Parrokian. Mondeju eta pelota egiten, linua lantzen, tela-

rra e.a. herriko plazan. Salmenta perie. Ganadu erakusketa, ardi eta ahari loteak eta pottokak eskola inguruan Olaldeko parkean. Olaku Errota, Juan Inazio Iztuetaren jaiotetxean, konfiteri, ermentari, perratokia eta abereak perratzeko behar diren materialak egiteko forja e.a. ikusgai Olaldeko parkean.

12:00etan: IX. Mondeju Lehiaketa Jesus Mari Irazu eta Maialen Lujanbio bertso-lariekin batera. Plazan mondeju pintxoak dastatu ahal izango dira.

13:30etan: Sari banaketa.

14:30etan: Bazkaria, herriko jatetxeetan (mondejua, ardikia saltsan, ardikia erreta piparrekina, gazta, ardoa, kafea, kopa eta purua 18,00 euro).

Euskara ikastaroak

Zaldibiako Udalak, Euskalduntze, alfabetatze eta sakontze mailako euskara ikastaroak antolatu nahi ditu. Interesatuak jo dezatela lehenbailehen, Kultur Etxera (943160338), izena emateko, atzo, urriaren 16an amaitu baitzen.

Soinketa ikasturtea

Aerobic, mantenimendu eta hirugarren adineko mantenimenduko soinketa ikastaroak hasiko dira azaroaren 3an. Izen emateko epea, atzo, urriak 16, buktu zen.

17:00etan: Kalejira.

17:30etan: Kirolak: 'Karratu' korrikalaria Txurruren More pottokaren aurka. Pottoka lasterketa, Joxe Mari Aperribairen Bizkai pottoka Zapeko Arbeluren aurka.

19:00etan: Erromeria Epelde eta Larrañagarekin. Roberto Etxebarria eta Kepa Arrizabalaga trikitilariak eta Landa aita-semeak ahoko soinu eta panderoarekin.

20:30etan: Kalejira.

21:30etan: Afaria norberak nahi eta ahal duen lekuan.

23:00etan: Erromeria.

01:00etan: Kalejira Ardiki Egunari amaiera emanez.

Zaldibiako IX. Mondeju lehiaketa

Mondeju lehiaketan parte hartu nahi duenak urriaren 23a baino lehen beharko du izena, 943160338 telefono zenbakira deituta, astelehetik ostiralera, 12:00etatik 19.30era bitartean.

Mondeju lehiaketako parte hartzea irekia izango da. Mondeju zuria egiten dakien

edonork har dezake parte. 5 kana ekarri behar ditu parte hartzaile bakoitzak, jateko prest. Bertako produktuekin eginak izango beharko dute mondejuek. Urriaren 25eko goizeko 10etarako, herriko plazara eraman beharko dira mondejuak, beren salda eta guzti.

Antolatzaileek lehiaketako parte hartzaileek ekartzen dituzten eltzei zenbaki bana emango diete, epaimahaikideek mondeju-gileen izena jakin ez dezaten.

Lehiaketan aurkeztzen diren mondejuen puntuaziorako honako irizpideak hartuko dira kontuan: itxura, estalkia, ebaketa, zaporea, usaina eta nahasketako osagaien txikitze-tamaina.

Epaimahaia jatetxeetako sukaldari ezagunek eta gai honetan aditu diren herritarrek osatuko dute.

Sariei dagokienez, 3 sari emango dira: 1.arentzat 300 euro eta txapela, 2.arentzat 200 euro eta 3.arentzat 120 euro. Parte hartzaile bakoitzak bazkarirako txartela dohainik jasoko du

OTEÑE ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun ingurune paregabe

Larraitz bidea

GAINTZA

943 88 98 48



Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

Anduetza egur museoa asteburuetan irekita



Egurraren interpretazio zentrotzat jo daiteke, urriaren 11 ezkerro, asteburuetan eta jai egunetan, goizeko 11:00tik 14:00etara eta arratsalde 16:00etatik 19:00etara irekita egongo den Enbor egurren Museoa. Bertan Euskal Autonomia Erkidegoan dauden arbola mota guztietako enbor bana dago. Enbor hauek barnetik zein berezitasun dituzten ikus daiteke, eta aldi berean bere azala ere ikusgai dago, era horretara arbola bakoitzaren ezaugarriak ikusi ahal izateko. Bilduma hau, Imanol Artola zegamar basozainak egin du urteetan zehar eta Zegamako Udala eta aurreko legealdiko, Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Departamenduaren elkarlanaren bidez, Zegamako Anduetza Etxean kokatu ahal izan da. Erakusketa bixia eta ikusgarria da.

Bestalde, basozainek urteetan zehar erabilitako lana-

Zegamako Ostatua maizter berri bila

Egun Zegamako Ostatuaren ustiakuntza egiten dutenek, abenduaren 10ean uztea aurreikusita dutenez, Zegamako Udalak bere ustiaketa erregulatuko duen baldintzen plegu berriak onartu zituen 2003ko irailaren 8an. Proposamenak aurkezteko epea urriaren 20a bukatuko da eta baldintza pleguak Zegamako Udaletxeko idazkaritzan lor daitezke bulego orduetan. Ostatuak, besteak beste, taberna, jangela, 10 logela eta maizterrentzat etxebizitza du.

bes, jantzi eta sua itzaltzeko tresnak ere bertan daude, ogibide honen garapena ikusi ahal izateko.

Eduarne Albizu

Kultur Etxe aurreko parkea obratan

Kultur Etxe aurreko parkea eraberritzeko proiektua onartu zuen Udalak bere garaian eta, Iparragire S.L. Eraikuntza Enpresak dagoeneko lanak hasiak ditu. Hiru hilabeteko epean bukatuko dira.

Jubilatu Elkartetik Gernikako azokara

Jubilatu Elkartek, datorren urriaren 27an, astelehena, Gernikako Feriara joateko aukera jarri du. Bidai hau egiteko ez da beharrezkoa jubilatua izatea.

Izenematea, urriaren 22 eta 23an egin behar da arratsaldeko 5etatik 7etara Jubilatuen Elkartearen. Irteera, urriaren 27an, goizeko 9etan izango da Kooperatiba aurretik.

1926an jaiotakoek kinto bazkaria

1926an Zegaman jaiotakoek edota urte horretan jaio diren kanpotar zegamartuek bazkaria dute datorren azaroaren 9an. Lehenik Martin Parrokian elkartuko dira 12:00etako meza entzunez eta ondoren Otzaurteko Bentan izango dute bazkaria. Ber-

tan parte hartu nahi duenak dei beza honako telefono hauetara urriaren 30 bitartean. 943 801379 (Justina) edota 943 800045 (Felipa).

San Martin azaroaren 15ean

Artzain irabazlearen 12 gazta zozketatuko dira

San Martin Feria aurten azaroaren 15ean ospatuko da Zegaman. Aurten Urbia eta Aizkorriko artzainen arteko 5. gazta txapelketa egingo da eta esan, bertara aurkez daitezkeen artzainen eremua zabaldu egin dela. Aurtendik aurrera, Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoan edota Partzuergoko herrietako udalerrietako artzainez gain, Aizkorriko Parke Naturalaren eremuan sartzen diren herrietako artzainek ere parte hartu ahal izango dute. Ondorioz lehiaketara artzain gehiago aurkeztea espero da. Bestalde, dagoeneko salgai daude, egun horretan irabazten duen artzainarengandik, kilo eta erdi inguruko 12 gazta jasoko dituen zozketarako errifak. Zozketa, San Martin Feriko egunean, azaroaren 15ean eguerdiko 1,30etan egingo da Zegamako kiroldegian.


 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 80 50 30 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 16 08 23

www.goerritelebista.com



Goierri
Telebista

emititzen!

tel. 943 085477

erredakzioa@goerritelebista.com

publizitatea@goerritelebista.com

laster uhin bidez

sintonizatu



11

kanala

Udazken kulturala abian da

Datorren astean, urriaren 25ean emango zaio hasiera aurtengo Udazken Kulturalari. Azaroaren 16a bitarte egitarau zabala prestatu da. Ondorengo ekitaldiak izango dira lehen astean.

Lehiaketak

● **Jendaureko XII. margo sariketa.** Urriak 26. Antolatzailea: Arrano Kultur Elkartea. Deialdia erabat irekia da parte hartu nahi duen edonorentzat. Partehartzaileak goizeko 9etatik 11etara zigitatu behar dituzte lanerako erabiliko dituzten euskarriak Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoran. Lanak 13:30ean aurkeztu beharko dira. Sari banaketa 18:30ean egingo da Usurbe Antzokian.

Aurkezten diren lanekin erakusketa antolatuko da

urriaren 26an 19:00etan. Azaroaren 16a bitarte egongo dira ikusgai. Lanegunetan 19etatik 21etara eta jaiegunetan, ordu honez gain, 12etatik 14etara.

● **Argazkigintzako XII. Rallya.** Urriak 26. Antolatzailea: Argizpi Argazkizale Elkartea. Lanbidez argazkilariak ez diren zaletu guztiek har dezakete parte. Izenemateak eta material-banaketa, egun berean egingo da goizeko 9etan. Lanak 14:00etarako aurkeztu beharko dira. Ordu honetan berriz ere izenak emateko aukera izango da, hauek 18:00etarako aurkeztu behar dituzte lanak Urbieta Arte Plastikoetako Zentroan.

Igartzako Monumentu-Multzoan bisita gidatuak
Igartzako Monumentu-mul-



tzoa ezagutzeko aukera izango da antolatu duten bisita gidatuen bidez. Diaporamaren bidez erakutsiko zaigu Beasaigo historia eta errotagintzaren inguruko erakusketa ikusteko aukera ere izango da. Astebukaeratan, goizez 11etan eta 12,30etan eta arratsalde, 4etan eta 5,30etan izango dira bisitak.

Antzerkia

'**Kutxidazu bidea, Ixabel**' antzerki emanaldia. Urriaren 29an Gorringo taldearen eskutik. Usurbe Antzokian 21:00etan hasita. Sarrera 9 euro, alde aurretik leihatilan.

Musika

● **Mac Jearas jazz** taldearen kalejira. Urriaren 25ean, 18:30ean hasita.

● **'The Tudor Consort'** abesbatza. Urriaren 30an, Loinatz abesbatzak antolatuta, 'The Tudor Consort' abesbatzak kontzertua emango du Andre Mari Zerutuaren Parrokian, 20:00etan hasita.

● **'Quique Sinesi'**-ren kontzertua, azaroaren 3an, Udal batzar-aretoan, 18:30ean.

Haurrentzako ekitaldiak

● **Zine-emanaldia.** Urriaren 25ean, Usurbe Antzokian. 'Alhambrako giltza' filmaren proiektzioa. Sarrera: 2,40 euro.

● **Ipuin kontaketa** saioa. Urriaren 28an, Joseba Ramirez izango da ipuinak kontatzen Kultur Etxeko Bibliotekan 18:00etan.

Sukaldaritza ikastaroa

Urriaren 27an irekiko da epea, Gabonetako sukaldaritzaren ikastaroan parte hartzeko. Azaroaren 5, 12, 19 eta 26an, arratsaldeko 3,30etatik 5,30etara izango dira klaseak. Izenemateak, astelehenetik ostiralera Asmuben, arratsaldeko 5etatik 7etara.

Odol emaileri domina banaketa

Urriaren 25ean, dominak banatuko zaizkie, 25, 50 eta 75 aldiz odola eman dutenei. La Salle-San Jose ikastetxean 19:00etan egingo da ekitaldia.

Belaunaldien arteko IV. topaketa

Urriaren 17an, arratsaldeko 5,30etatik 8etara Urbialde plazan ospatuko da belaunaldien arteko IV. topaketa. Helburua, adineko pertsonak eta umeen arteko harramanak bultzatzea da. Horretarako jokoak eta tailerra antolatu dituzte. Parte hartzeko baldintza bakarra izango da; partehartzaile guztiak bikoetan bildu beharko dira, eta bikote bakoitza adineko pertsona batek eta ume batek osatu beharko dute. Partehartzaile guztiei opari bana banatuko zaie eta txokolate-janean parte hartu ahal izango dute.

Nortasun agiria berritzeko datak

Nortasun agiria berritu nahi dutenek Beasainen egiteko aukera izango dute Udal bulegoetan azaroaren 23an.

Botilako sagardo lehiaketa

Urriaren 7an, Murumendi pelotazale elkarteak antolatuta ospatu zen XXX. botilako sagardo lehiaketa, Zubietako Astiazaran sagardoa atera zen garaile. 70 partaide aurkeztu ziren. 2. saria Julio Escalanterentzat izan zen.

Babes Ofizialeko Etxebizitzaren zozketa

Ezkiaga Auzoan eraikiko dituzten 96 etxebizitzaren zozketa, atzo urriaren 16an egin zen. Hauetatik 60, Mariaratz kalean eraikiko dira, Murumendi ikastetxea eta San Luis etxearen artean. Beste 36ak berriz, Ezkierdi pilotalekuaren aurreko orubean eraikiko dira, Oriá Pasealekua eta Ezkiaga Etorbide artean. 412 eskaera aurkeztu ziren eta hauetatik 213 beasaindarrenak izan ziren.

Nekane Altuna

Urrian kultura ugari

Yartu Kultur Elkarteak eta Udalak, aurreko urteetan bezala, hainbat kultur ekitaldi antolatu dituzte. Jarraian duzue aurrerapena:

Sagardo egitea Igartu Beitin

Urriaren 23tik 30era, sagardoa egingo dute Igartu Beitin. Herrikoentzat erakustaldi berezia izango da, urriaren 23an, arratsaldeko 7etan.

Nor izan zen Patxi Etxeberria?

Gaur, urriak 17, arratsaldeko 7,30etan, Itsason, Elixabete Garmendiak, Mikel Atxagak eta Gilleremo Etxeberriak, Patxi Etxeberriari buruzko hitzaldia eskainiko dute. Patxi Etxeberria euskaltzale sutua, Itsason apaiz izan zen 1926-1930 artean, eta harreman ugari izan zuen Alegia eta Santa Lutziakoekin. Patxik bere 'Izaten hasi' liburuan azaltzen dituen esaldi, atso-titz, Itsaso eta Ezkioko base-

rri, ohitura eta hainbat pertsona eta ibilaldiren berri eman go da.


Umeen jaia

Bihar, urriak 18, bertso magia ikuskizuna izango da arratsaldeko 6etan, Santa Lutziako Kultur Etxean. Jon Martinek eta Alain Urrutiak izango dute bertso-magiaren ardura. Txokolate jana ere izango da bertaratutakoentzat.



Koke Lasaren emanaldia

'Changtok: 5.045 m: Xingiangeko ezezaguna (Txi-



Igartu Beiti baserriko dolarean sagardoa egingo da urriaren 23tik 30era bitartean.

nan)' diapositiba emanaldia eskainiko du Koke Lasak, urriaren 24an, arratsaldeko 7,30etan, Santa Lutziako Kultur Etxean. Koke Lasak mendi horri buruzko azalpenak emango ditu.

Erretiratuen eguna

Urriaren 26an, erretiratuen eguna ospatuko da. Meza, salda eta bazkaria izango dira.

Bizimodua aldatu naturari laguntzeko

Lema hori kontuan hartuta, Haizea Ikerketa, S.L. enpresako Elixabete Zuriarrainek hitzaldia eskainiko du urriaren 28an, arratsaldeko 7,30etan, Santa Lutziako

Kultur Etxean. Garapen jasagarria eta ingurumena uzartuz, naturarentzat kaltegarri diren jokabideez jabetzeko, gure eguneroko bizimodua aztertuko du Zuriarrainek: jatea, janztea, garbiketak, joan-etorriak, etxe ingurua zaintzea, oporrak eta aisialdia.

Erakusketak

Bi erakusketa izango dira ikusgai Kultur Etxean, liburutiaren orduetan.

Batetik, zeramika erakusketa. Helduek eta haurrek iazko ikasturtean Pott lantegian egindako arte-lanak.

Bestetik, iaz, 'Herri-flash' ekimenean herriko txoko ezkutuei ateratako argazkiak.

IBAI-ONDO AROTEGIA

Koltxoak
Somierak



Sofak,
altzari mazizoak
haritzekoak,
gerizekoak,
gastainondoak

multisac
— SYSTEM —

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

VOLVO



ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48 11
www.anzizar.com
BEASAIN



MUJIKA

LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

European ere Ordizia ezaguna

Izan ere Idiazabal Gaztaren alde urte askotan egindako lana aitortu nahian, Europako beste hiri batzuekin bat egin berri du Ordiziak. Multzo mugatua da honako hau eta bertan Frantzia, Holanda, Suitza, Alemania, Belgika, Italia, Eslovakia eta Espainia-ko hiri batzuk besterik ez daude sartuta, guztiak ere gaztaren alde egindako lan handiagatik nabarmenduaz. Japoniako hiri bat ere tarteko da.

Urriaren 5ean egin zen urteko biltzarra Parisen eta hor izan ziren Udaleko ordezkariak. Gaztaren Europako Hirien presidentea bera izan zen Ordiziaren lana aitortu eta ba-

bestu zuena. Multzo horretan sartzeko proposamena egin eta hala onartu zuten Ordizia ere beraien artean izatea. Presidente, Gérard Ripaud, hemen izan zen irailean euskal jaietako peri berezian eta gazta lehiaketan epaimahaiko lanak bete zituen. Lehendik bazekien ere hor jabetu zen benetan Ordiziak Idiazabal gazta bultzatzeko urteetan egindako lana eta ordaina oraingo errekonozimendu honekin iritsi da.

Parisen egindako batzarrean Ordizian 2005eko maiatzean urteko batzarra egitea erabaki zen. Era berean, Europako gazte eskainitako peri berezia egin da.



Elizan berrikuntza lanak

Gela batzuk egoera oso kaskarrean daudela kontuan hartuta eraberritze lanak egiteko erabakia hartu da. Arteaga Kalera begira dauden gelak dira berauek eta behatokia ere hortxe dago. Itxura txarra dute. Gela hauek ez dira erabiltzen eta botatzeko erabakia hartu da. Lanen aurrekontua 500.000 euro ingurukoa da eta zati bat Elizak, beste bat Udalak eta azkenak herritarren laguntzekin osatzea espero da.



Artisaualdi oparoa

Jende ugari hurbildu zen aurreko asteburuan Majori Kiroldegira. 50 artesautik gora izan ziren bertan eta guztiak ere gauza bixiak egiteko dituzten dohainak begibistan utzi zituzten. Hitzaldietan ere izan zen jenderik. Argazkian, Koki Fernandez.

Nafarroa Oinez Irunberrin

Nafarroa Oinez 2003 ospatuko da igande honetan Irunberrin (Lumbier). Nafarroako Ikastolen aldeko festa honetara joateko Ordiziako Gazte Asanbladakoek autobusa antolatu dute. 7 euroren trukean. Txartelak salgai dira herriko hainbat tabernatan.

Alaitz Sarasola aurrera

Gipuzkoako Txapelketako lehen kanporaketak jokatu berri dira eta bertan final laurdene-tarako txarteletako bat lortu du Alaitz Sarasola herritar-rak. Zaldibiako saioan aritu zen Alaitz eta bertan zuzenean aurrera egitea lortu ez bazuen ere, eskuratutako puntuei esker final laurdenetan izango dugu. 272, 5 puntu eskuratu zituen. Hurrengo saioa Andoainen izango du, azaroaren 9an, arratsaldeko 5etan Bastero Kultur Zentroan. Berarekin arituko dira kantuan Aitor Sarriegi, Amaia Agirre, Aritz Zerain, Iker Osa eta Mikel Arrillaga.

Bestalde, final laurdenetako beste saio bat Ordizian izango da. Urriaren 26an, igandea, arratsaldeko 5etatik aurrera Unai Agirre, Alfontso Jimenez, Unai Muñoa, Iker Zubeldia, Nahikari Gabilondo eta Leire Ostolaza arituko dira bertsotan Herri Antzokian. Final erdietara nor pasa egongo da jokoan.

Aitor Calvillo



Internet guztien eskura KZ gunean

Interneten web orria sartzan lehenengoetariko herria izan zen gurea, urteak daramatza udalak informazio osotua eta zabala sarean eskaintzen, herri askoz haziagoei aurre hartuz. Azkena onartu ziren arau subsidiarioak guztien eskura informatikoki jartzeko ere bada proiektu berritzaile bat Foru Aldundiarekin batera, eta laister eroso irakurri ahal izango ditu edonork etxetik mugitu gabe. Aitzindaria da teknologia berrietarako egokitzapenean Gabiria, bistan denez. www.gabiria.net da webgune ofizialaren helbidea.

Bada, informatika mundu hori nola erabili jakitea izaki hurrengo urratsa, KZgunea deritzon programaren barruan Internet zer den, nola nabigatzen den, eta tresnen oinarriak zeintzuk diren ezaugarazteko eginkizuna buru-

tuko da. Ordenadorea ukitu ere egin ez dutenentzat dago bereziki pentsatua ikastaro hau, ez baita beharrezkoa inolako jakintzarik edukitzea alorrean. Hutsetik abiatuko da, debalde gainera. Jubilatua, etxekoandreak, ordenadorea erabiltzen zer bait ikasi nahi duten guztiak animatzen ditu udalak inguruko herrietan arrakasta izan duen egitasmo honetara.

Udaletxean ordenadorekin hornituta gela bat prestatu dute, tutore edo irakasle bat egongo da guztiaren arduradun eta klaseen ordutegia bai goizez bai arratsaldez jarriko da, taldeen arabera. Urri partean martxan jarri nahi da KZgunea, beraz lehenbailehen izena eman beharko luke interesa duenak herriko etxean bertan (943 880734).



Rally bustia

Vasco Navarro rallya ikuskizun bikaina suertatu zen, nahiz euriak ehuneko ehunean dizdiratzea eragotzi zuen. Hala ere estatu mailako pilotoak -profesionalak asko- eta auto ofizialak ez ziren kikildu, eta larunbat goiz betea izan zuten inguratu ziren motorzaleek. Errepidea ixteak zenbait baserritarako sarbidea kendu bazuen ere, orokorrean arazorik ez zen gertatu, susto txikiren bat edo beste kenduta, argazkian soma daitekeenez.



Bola txapelketako emaitzak

Hamargarren urtea bete du Osinalde elkarteak antolatzen duen bolaketak. Partehartze zabala izan zuen beste behin denboraldiko azkenetako tiraldi honek, bolari gipuzkoarren gozamenetarako. Hasi aurretik Gilberto Juaristi legazpiarraren omenez minutuko isilunea egin zen. Hiru sailetan banatu ziren sariak, hona bakoitzeko sailkapena sei botaldiren ondoren.

Orokorra: 1. Pedro Agirre (36), 2. Martin Retegi (35), 3. Juan Goenaga (35).

Herrikoa: 1. Javier Zabaleta (34), 2. Migel Mujika (34), 3. Joxe Maiz (33).

Gazteak: 1. Andoni Berasategi (31), 2. Jon Maiz (29).

Jubilatuen eguna

Adinekoei udalak eskaintzen dien festa eguna hil honen ondorenean egingo da, urriaren 26an, hain zuzen, azken igandean. Eguerdiko mezatarako bilduko dira erretiratuak, eta egitarauak dantzarien emanaldiarekin jarraituko du. Ondoren bazkaria egingo dute Ostatur, herriak eskainita. Bazkalondan trikitilari eta bertsolariek alaituko dute giroa, eta orduan jakingo da aurtengo bi omenduak zein diren. Bazkaltzera joan nahi dutenek urriaren 23rako Ostatu jatetxera deitu behar du (943 887913).

Kultura eta telebista

Hiru gabiriar nabarmendu behar dira arlo honetan. Batetik, Marian Bidegainek Lazkaoko Kilometroak jaiaren barnean orogarria jaso zuen Maizpide euskaltegiaren zuzendari bezala, zuzentzen duen erakunde honek euskalgintzan egiten duen lanaren onspen agiri. Beste bi izenak telebistarekin lotuta datoz; Andoni Aizpuruk sorreratik aurkeztu duen Bertatik Bertara saioa utzi eta Barnetegia programa berriari ekingo dio, eguraldiaren iragarpenarekin tartekatuz. Goyerri Telebista proiektua ere benetako bihurtzen ari da, Jon Aldanondo ormaiztegiar gabiriaratuaren zuzendaritzapean. Gaurkoz Euskaltelen hari bidez soilik jaso daiteke seinalea (S11 kanalean), baina uhinez berehala iritsiko omen zaigu gainontzeko goierritarroi eskualdeko informazioa.

Aimar Maiz

Udal ikastaroak hasita

Euskara. 6 laguneko taldea. Asteazken ordu ekainera arte. Maila ertaina. Txanbolinpen aritzen dira. Irakaslea: Marina Paglialunga.

Aerobic. 20 lagun 2 taldeetan. Helduak, asteazken 3 orduz, bazkalondotzen. Gazteak, asteazken bi orduz arratsaldeetan. Ekainera arte. Baratzeko pilotalekuan. Irakaslea: Sabina Zivenc.

Soinketa. Jubilatuen taldean 10 lagun, goizekoan 10 eta arratsaldekoan ere 10. Klaseak ekainera arte. Baratzeko pilotalekuan. Irakaslea: Jokin Elkorro.

Egur tailaketa. 10 lagun hasi dira. Asteazken bi ordu eta erdi, iluntzetan, postetxe atzean. Guztira 30 ordu. Irakaslea: Jabier Arrieta.

Eskulanak. 10 lagun hasi dira. 30 orduko ikastaroa. Irakaslea: Iñaki Urreaga.



Udalaren eskerra

Pasa den irailaren 5, 6 eta 7an burutu zen Nazioarteko sega txapelketa antolatzea posible egin zuten elkarte, talde nahiz partikularrei (200 herritar inguru), bere esker ona azaldu nahi die udalak. Urriaren 9an, balorazio bilera egin zen udaletxean, Almintza sega elkartekoak, sega batzordekoak eta udal ordezkariak bildu ziren. Orokorrean, balorazio positiboa egin zen. Herrialde partehartzaileak ere oso gustura geratu zireneko mezua ere eman zen bertan.

Dokumentala prestatzen

Nazioarteko sega txapelketako hiru egunetako ekitaldien dokumentala prestatzen ari dira Fotoetxeakoak. Berehala izango da ikusgai eta eskuragai.

46 ikasle kirol eskolarrean

3., 4., 5. eta 6. mailako 8tik 12 urte bitarteko Laiotzeko neska-mutikoei, urriaren 18an hasiko dute eskola arteko kirol denboraldia. Xabier Intxaustiren ardurapean, zenbait guraso eta gazteren laguntzarekin, zapatu-jaietan atletismoan, krosean, areto futboleko, saskibaloian, pelotan, tenisean, mahai tenisean, mendian, igeriketan, herri kirolean eta xakean arituko dira neska eta mutil alebin eta benjaminak.

● **Areto futbola.** Urriaren 18an, Loinazpen dabilizan neska infantilei Jakintzakoen kontra jokatu dute



Mendi taldekoak, pasa den denboraldian, Beasaiden, atzean Anboto dutela. Argazkia: Txetxu Ormazabal.

11:00etan hasita.

● **Mendi irteera.** Urriaren 26an, 2002/03 finalistaren eguna izango da Mutrikun.

Gipuzkoa guztikoa. 7:45ean autobusa plazan. Izen ematea, aurrez, eskolan.

Koldo Muñoa herritarrek zilarrezko domina eta diploma jasoko dituzte. Ondoren afaria izango dute Liernin.

Futbola

Asteburuko emaitzak. **Erregionalak:** Zarautz 0-0 Segura. **Jubenilak:** Hamaiakak bat 1-1 Segura. **Kadeteak:** Aizkorri 1-3 S. Herrera. **Infantilak:** Lagun Onak 9-0 Aizkorri.

Asteburuan etxean. Infantilak: Aizkorri-Real Union (zapatuan, 11:00etan). **Jubenilak:** Segura-Basconia (zapatuan, 15:30etan).

Labur-labur

● **Jubilatuentzat hitzaldiak.** Urriaren 22an, Josebe Eizagirre, gerru eta sexu arazoetaz arituko da. Urriaren 23an, Julian Bereziartua, gor-

putzeko azaleko gaitzez mintzatuko da. Biak, 19:00etan, Kultur etxean.

● **Umetxea.** Beheko eskolako obrak direla eta, Musika eskolakoek Umetxea libre uzten dutenean zabalduko da. Ikasturtean zeharreko funtzionamendurako bilera deia pasako zaie gurasoei.

● **Nafarroa Oinez.** Urriaren 19an, Elorri K.E.-ak Irunberrirako antolatu duen autobusa, goizeko 8,30etan aterako da plazatik. Izen ematea, Eloorripen (6 euro).

● **Koruaren entsaioak.** Santa Zezilia egunerako lehen entsaioa urriaren 23an, 20:00etan Kultur etxean. Aurrierantzean, ostegunero ordu berean.

Joseba Telleria

Kantu emanaldia

L'Arcusgi korsikarrak urriaren 25ean

Elorri kultur elkarteak antolatuta, Korsikako L'Arcusgi abeslari taldearen emanaldia izango da urriaren 25ean, 20:00etan herriko plazan. Dozena bat laguneko kantari talde hau, Europan zehar zenbait kantaldi ematen ari da. Duela 20 urte sortutako taldeak, dagoeneko 6 disko kaleratuak ditu. Korsikeraz abesten dute, bertako egoeraren berri azaltzen dutelarik.

Gazte festak eta kultur astea

Gazte Festak eta Kultur Astea dira herrian ospatuko diren hurrengo ekintza nagusiak.

Gazte Festak

Gazte Festak gaur, urriak 17, arratsaldeko 7etan hasiko dira honako egitarauarekin:

Urriak 17, ostirala (San Fermin txiki):

19:00etan: Pregoia eta txupinazoa, festei hasera emateko. Ondoren buruhaundiak.

20:00etan: Afari herrikoia. Zuri-gorritz jantzita joan beharko da, afariari San Fermi-netako kutsua ematearren.

Urriak 18, larunbata:

14:00etan: Herri bazkaria. Gazte Festetako nikiarekin joan beharko da. Ondoren, 'Iraunkorrek' txarangaz gozatzeko aukera izango da.

17:00etan: Apustua Guadalupe auzoko gazteen eta gaintontzeko herriko gazteen artean. Hainbat joko prestatu dira, sokatira, zurito apustua... besteak beste.

19:00etan: Poteo herrikoia: 'Iraunkorrek' txarangak alaitua.

Oharra: Gazte Festetako nikia erosteko garaian, kontutan eduki behar da, Guadalupekoen kolorea gorria dela, eta herrikoena beltza.

Kultur astea

Aste kulturalaren egitaraua:

Urriak 22, asteazkena:

17:00etan: Joseba Ramirez eta Arantxa Cruz ipuin kontalariak Liburutegian 3-8 urtetako gazteentzat. Euskaraz.

18:30ean: Buruhaundiak.

19:00etan: Hitzaldia: 'Nagusiak eta familia. Belaunaldiarteko harremanak' Herri Zineman. Hizlaria: Amagoia Murumendiaraz. Euskaraz eta gazteleraz.

Urriak 23, osteguna:

17:00etan: Hitzaldia Ugaro Herri Ikastetxean: 'Autoestima. Hizlaria: Amaia Vázquez. Euskaraz eta gazteleraz.

17:00etan: Tirolinak, Puenting eta eskalada Herrikoia Udal Pilotalekuan.

19:00etan: Hitzaldia: 'Bolutariadoa eta gizarte parte-hartzea' Herri Zineman. Hizlaria: Amagoia Murumendiaraz. Euskaraz eta gazteleraz.

20:30ean: 'El crimen del Padre Amaro' filmearen ema-

Ugaro herri ikastetxean irteera

Urtero bezala, Ugaro Herri ikastetxeko 6. mailako ikasleek aste baterako irteera batez gozatzeko aukera izango dute. Aurtengoan, 6. mailakoekin batera, 5. mailako 7 lagun ere joango dira. Urriaren 21etik 27ra bitartean izango da irteera, Bartzelona aldera. Ekintza ugari egiteko asmoa dute. Bartzelonako hiriburuan bertan, hainbat toki bisitatuko dituzte: Parque Güell, Sagrada Familia, Ramblak, Portua (Museoa eta Aquarium-a), Erdi Aroko Bartzelona eta zoologikoa, besteak beste.

Bestalde, Valle de Nuriara ere joango dira, eta bertan, 2000 metro ingurutan dagoen Santutegia bisitatuko dute. Amaitzeko, Tarragona Imperial-en, erromatarren aztarnak ikusiko dituzte.



naldia Herri Zineman Gazteleraz.

Urriak 24, ostirala:

16:30ean: Pote, Igel eta Toka txapelketa jubilatuentzat.

19:00etan: Buruhaundiak.

19:30ean: 'Zurrit Show' Jaialdiaren emanaldia Herri Zineman. Euskaraz.

23:00etan: Legorretako IX. Mus Txapelketa Bilkoinen.

Urriak 25, larunbata:

18:00etan: 'Takolo, Pirritx eta Porrotx' pailazoak Udal Pilotalekuan. Euskaraz.

Urriak 26, igandea:

12:30ean: 'Euskal Dantzaren Historia Legorretan' erakusketaren zabaltzea (trajeak, argazkiak, dokumentuak eta abar.).

12:45ean: Kalejira Solano Musika Eskolako Ikasleekin.

13:00etan: Buruhaundiak.

13:30ean: Irrintzi Alai dantza taldearen emanaldia.

13:45ean: Bilkoin eta Jota Kea Elkarrekin eskainitako Hamaiaketakoa.

Zelai Amenabarro

Erakusketa

Kultur Etxean, urriaren 22tik 26ra, Juan Manuel Rostro Valleen erakusketa. Orduetgia: arratsalde 17:00etatik 20:00etara (asteazkena, osteguna, ostirala eta larunbata); goizez, 12:00etatik 14:00etara (larunbata eta igandea).

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTÓLOGA

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84



Nagusientzako gimnasia ikastaroa

Herriko nagusi guztiak gonbidatu nahi ditugu hasiberri den ikastaroan parte har dezaten. Bertan nagusiei egokituriko ariketak burutzen dira eta partehartzaileak gorputza sasoiz mantentzeaz gain une atseginak pasatzen dituzte. Ikastaroak astearte eta ostiralean izaten dira 11:30etatik 12:30etara. Ikastaro hauek dohainik dira eta parte hartu nahi duen edonork zabalik dugu bertako atea.

Eskulan Tailerra

Carmen Soto irakasleak gidaturik aurtien ere martxan da eskulan tailerra. Bertan herri-tarrek era askotako eskulanak burutzen dituzte irakaslearen gidaritzapean. Bertan parte-hartu nahi duenak asteazketan 15:45etatik 17:45etara udaletxe gaineko lokalera azaldu behar du. Ikastaro hau ere dohainik da.

Kzgunea

Kzgunea dagoeneko martxan dago eta bertara ingurantzaren den edonorri Nabigazio zein Prestakuntza zerbitzuak eskaintzen dizkio. 16 urtetik gorako edozein pertsonak dauka sarbidea, bai Internetean jakitun denak, eta gehienbat, Internet edo ordenagailuen munduan inongo ezagutzarik ez duenak. Eskaintzen diren ikastaroak KZ 20 ordu eta NagusiWeb (azken hau 55 urtetik gorako jendearentzat bereziki egokitua) dira.

Azarorako ikastaroak

KZ 20 ordu: Azaroaren 3tik 14era 14:00etatik 16:00etara
KZ 20 ordu: Azaroaren 10etik 21era 16:00etatik 18:00etara
KZ 20 ordu: Azaroaren 17tik 28ra 14:00etatik 16:00etara
Nagusiweb: Azaroaren 3tik 7ra 16:00etatik 18:00etara

Ordutegia

Azaroko ordutegia arratsaldeko 14:00etatik 18:00etara izango da. Harremanetarako telefonoa 943 88 00 71. Udaletxe azpian (liburutegia) dago Kzgunea eta bertara hurbil zaitezke eskaintzen dituzten zerbitzuak erabiltzeko edo edozein informazioa eskatzeko. Ea guztien artean Itsasondoko udalak eta Eusko Jaurlaritzak eskeintzen diguten zerbitzu berri honi bultzada ematen diogun.



Azaroaren 1ean, gaztaina jana

Azaroaren 1ean, Santu Guztien egunean, ohiko gaztaina jatea egingo da arratsaldeko 7etan. Aurretik dena den, 18:00etan, Olaberriko X. Argazki rallyko diapositiben emanaldia izango da San Joan elizan eta amaieran sari banaketa egingo da irabazleentzako.

Bi erakusketa

Urriaren 27tik azaroaren 3ra bitartean, bi erakusketa ikusteko aukera daude udaletxeko erakusketa aretoan:

Batetik, Argazki rallyan hamar urte hauetan irabazle izan diren argazkien erakusketa.

Bestetik, Kutxa Fundazio-

'Gipuzkoako Arroilen eta Trokarteren jaitsiera' ikusentzunezkoa

Gaur, urriak 17, 'Gipuzkoako Arroilen eta Trokarteren jaitsiera' ikusentzunezkoa ikusteko aukera izango da, Gerarta Arotzenaren eskutik eta Kutxa Fundazioaren laguntzarekin, iluntzeko 19:00etan Bikario-etxean. "Kanpora joan gabe geure lurraldean zintzur eta arroil estuetan bustitzeko aukera oso politak dauzkagu: Irusta, Errekabeltz, Ataun, Maizi, Urzabal...", azpimarratu du Arotzenak.

aren bidez ekarritako Felix Pinillosen 'Argizaiolak' erakusketa. 50 argizaiola ezberdina ikusteko aukera dago, guztiak ere, Donostiako San Telmo museoan dauden oholtxoen kopia zehatzak dira. Erakusketa hau urriaren 27tik azaroaren 3ra bitartean ikus-

gai egongo da udaletxeko aretoan. Ordutegia: astean zehar 11:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 17:00etara (ostiral arratsaldea izan ezik); larunbatean 11:30etik 14:00etara eta 17:00etik 19:00etara; igandean: 11:30etik 14:00etara.

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42095

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Promozioa: auto ordua 12 euro

Aita Urdaneta ORDIZIA

☎ 943 88 72 76



N-1 errepeidea, lurre auzoa

☎ 943 88 43 01

OLABERRIA

Bixente Barandiaran bertsolari eta idazle itsasondarra hil da

Urriaren 1ean, Altzan hil zen Bixente Barandiaran, 86 urte zituela. Bertsolaria eta idazlea. 1994an GOIERRITARRA aldizkarian egindako elkarrizketa berreskuratu eta hona hemen handik eta handik bildutakoak, Bixente Barandiaranen omenez.

Itsasondoko Urkia auzoan jaio zen, 1917ko urtarrilaren 17an. Bertsosazetasuna txiki-txikitatik sortu zitzaion. 14 urterako hasi zen bertsotan, "aitona sentitu izan nuen bertsotan otordu ondorenetan", adierazi zuen 1994an GOIERRITARRA aldizkariak egindako elkarrizketan.

Bertsosale amorratua eta bertsolaria zen Bixente Barandiaran. Batez ere lagunarteko bertsolaria zen.

Artzaintza eta ikazkintza, nakezaritza eta fabrika, ofizio guztiak probatutako gizona zen Bixente Barandiaran. Gazterik hasi zen Pasaiaiko portuan lanean. Donostiako Altza auzoko Garbera base-rira ezkondu zen Aramako Baxili Mujikarekin. Ezkondu eta familia aurrera atera beha-



rrak eraman zuen bertsolaritza bazterrean uztera eta erretiratzeko unea gertu zuela ikusi zuenean berriro ekin zion.

Beranduko bertsolaria zen, hirurogei bat urte zituela hasi zen plazetan kantatzen. Inork ez zekien bertsotan aritzen zenik. 50 urte inguru zituenean bertsotan egiten ikusi zuten lagun batzuek taberna batean. Geroztik tarteka bertsotan eginez bizi izan da. Urriko festetan askotan kantatu zuen Mikel Mendizabal eta Xabier Zeberiorekin.

Idazlea

Oroimen edo memoria oneko gizona izan da Bixente Barandiaran. "Ez dakit idazteko

abilidaderik dudana ala ez, baina baldin badut berez sortu da. Hori bai, memoriak asko lagundu dit beti. Hogeita hiru urte egin ditut nik Ramon Vizcainon materialak bidaltzeko enbalaierako kajak egiten, eta ez nuen oholak mozteko neurriak hartu beharrik inoiz izaten. Zortzi kaja desberdin egiteko neurriak buruan hartzen nituen", adierazi zion Bixentek 1995ean Euskaldunon Egunkariari.

Bere bizitzaren azken urteetan, idazteari eman zion. Bere bizitzako oroitzapenak bilduta utzi ditu.

1990ean 'Zartu gabe ezin bizi' liburua idatzi zuen, haurtzaroko gertaerak ekarri zituen gogora, bertso batzuek lagunduta.

1995ean 'Lanik gabe ezin bizi' idatzi zuen. Gaztetako pasadizoak kontatu zituen.

1999an 'Tratabideak' liburuan, azkenik, tratua jorratzen duten asmatutako eta egiazko kontakizunak bildu zituen.

Hainbat bertso jarri ere idatzita utzi ditu Bixente Barandiaranek. 1994an GOIERRITARARRI adierazi zionez, horretantxe pasatzen zituen unerik goxoena.

Gipuzkoako Bertsolari

txapelketa aurrera

Urriaren 3an eta 10ean Goierriko bertsolariek jokatutako Gipuzkoako txapelketako lehen saioak. Ondorioz, lau bertsolarik aurrera egingo dute: Ekaitz Goikoetxea, Iban Urdangarin, Iker Zubeldia eta Alaitz Sarasola. Lau hauei, Aitor Sarriegi gehituko zaie fase honetan, finalaurdenetarako txartela aurrez lortua baitzuen beasaindarrak. Aipatu, Zaldibiako saioan Iban Urdangarinek eta Legorretako saioan Ekaitz Goikoetxeak, lehen fase honetako puntuaziorik altuenak lortu zituztela.

Finalaurdenak

Bost finalaurdenetako saio jokatuko dira. Urriaren 25ean, Iban Urdangarin Oñatin arituko da; Iker Zubeldia urriaren 26an Ordizian, Ekaitz Goikoetxea azaroaren 1ean Hernanin eta Aitor Sarriegi eta Alaitz Sarasola Andoinen, azaroaren 9an.

Ordizian saioa

Finalaurdeneko saioa jokatuko da Ordiziako Herri antzokian, urriaren 26an, arratsaldeko 5etan. Unai Agirre, Alfontso Jimenez, Unai Muñoa, Iker Zubeldia, Nahikari Gabilondo eta Leire Ostolaza arituko dira lehian.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarkeko, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN

Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea

Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488

OLABERRIA

KORO
FISIOTERAPIA
ERREABILITAZIOA

Eskatu ordue: 609 601 310 - 943 087 234
Sanperio kalea, 5-behea ORDIZIA

ZINEA

GOIENIZ:

Urriak 23: 'Mi vida sin mí', 21:00etan, Beasaingo Usurbe Antzokian.

BEASAIN:

'Pelota vasca'.

Urriak 17: 22:15.

Urriak 18: 19:30 - 22:15.

Urriak 19: 19:30 - 22:15.

Urriak 20: 19:30 - 22:15.

LEGORRETA:

Urriak 23: 'El crimen del Padre Amaro', 20:30ean, Herri zineman.

Urriak 30: 'Quiero ser como Beckham', 20:30ean, Herri zineman.

GOIENIZ

'Mi vida sin mí'

Isabel Coixet

(Espainia-Kanada, 2002)

Ann, 23 urteko neska, atoi batean bizi da senarrarekin eta bi seme-alabekin Vancouverko auzo baztertu batean. Erabateko eta ezuste-ko aldaketa, medikuak bizitzeko pare bat hilabete geratzen zaizkiola esatean etorriko da. Annek berria ezkutuan gordetzea erabakiko du; ondoren, hil baino lehen egin nahiko lituzkeen gauzen zerrenda osatuko du eta gelditzen zaion bizitza apurra ahalik eta modu sakonenean bizitzen saiatuko da.

GOARDIAKO FARMAZIAK

Astegunetan: Jauregi

(Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.

Urriak 18-19: Cuesta

(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

Urriak 25-26: Larnaga

(Kale Nagusia, 4 - Ordizia). 943 881828.

Azaroak 1-2: Urbizu

(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 880232.



musika

BEASAIN:

Urriak 25, Mac Jearas jazz taldearen kalejira, 18:30ean.

Urriak 30, The Tudos Consort abesbatza, Andre Mari Zeruratuaren parrokiari, 20:00etan.

Azaroak 3, Quique Sinesi taldea, Udal batzar aretoan, 18:30ean.

ORDIZIA:

Urriak 31, Ukraniako Gloria haur abesbatza, parrokiari, 20:00etan.

Azaroak 2, Japoniako Juri emakumeen abesbatza, parrokiari, 20:00etan.

Azaroak 3, Errusiako Vivat Vocal Ensemble abesbatza, parrokiari, 20:00etan.

SEGURA:

Urriak 25, Kortsikako L'Arcysgu taldea, 20:00etan plazan.

antzerkia

BEASAIN:

Urriak 29, 'Kutsidazu bidea' Ixabel, antzerkia, 21:00etan, Usurbe Antzokian. Sarrera: 9 euro.

bestelakoak

BEASAIN:

Urriak 28, Joseba Ramirez ipuin kontalaria, Udal Bibliotekan, 18:00etan.

LEGORRETA:

Urriak 22, Joseba Ramirez eta Arantxa Cruz ipuin kontalariak, liburutegian, 17:00etan.

Urriak 24, 'Zurrut show' jaialdia, Herri zineman, 19:30ean.

bertsoak

EZKIO-ITSASO:

Urriak 18, Bertso magia, Jon Martinek eta Alain Urrutiak gidatuta. 18:00etan, Santa Lutziko Kultur etxean.

ORDIZIA:

Urriak 26, Gipuzkoako bertso txapelketako finalaurre-denetako saioa, 17:00etan, Herri antzokian. Unai Agirre, Alfontso Jimenez, Unai Muñoz, Iker Zubeldia, Nahikari Gabilondo eta Leire Ostolaza.

pailazoak

LEGORRETA:

Urriak 25, Takolo, Pirritx eta Porrotx, 18:00etan, udal pilotalekuan.

hitzaldiak

EZKIO-ITSASO:

Urriak 17, 'Nor zen Patxi Etxeberria?'. Hizlariak: Eliaxabete Garmendia, Mikel Atxaga eta Gillermo Etxeberria. 19:30ean, Itsason.

Urriak 28, Bizimodua aldatu naturari laguntzeko, Eliaxabete Zuriarrainen eskutik, 19:30ean, Santa Lutziko Kultur etxean.

LEGORRETA:

Urriak 22, 'Nagusia eta familia. Belaunaldi arteko harremanak'. Hizlaria: Amagoia Muruamendiaraz. 19:00etan, Herri Zineman.

Urriak 23, 'Autoestima'. Hizlaria: Amaia Vazquez. 17:00etan, Herri Zineman.

Urriak 23, 'Boluntarioa eta gizarte partehartzea'. Hizlaria: Amagoia Muruamendiaraz. 19:00etan, Herri Zineman.

SEGURA:

Urriak 22, Gernu eta sexu arazoez hitz egingo du Josebe Eizagirrek, Kultur etxean, 19:00etan.

Urriak 23, Gorputzeko azaleko gaitzez hitz egingo du Julian Bereziartuk, Kultur etxean, 19:00etan.

Sustraiez Blai: asteburua bete-betea

Itsasondon kokatu duten karpan bi kontzertu erraldoi izango dira gaur eta bihar. Asteburuko bonoak 25 eurotan daude salgai. Bestelakoan, ostiraleko sarrerak 13 euro balio du eta larunbatekoak 15. Jarraian duzue egitaraua:

Urriak 17: Eskutank, Wafir, Txatunga Bembe, Zaragoza Accion Sonora + Goierriko gonbidatuak.

Urriak 18: Möondo, Bidinte, Ojos de Brujo eta DJ. Lord Sassafras.

ikusentzunezkoak

EZKIO-ITSASO:

Urriak 24, Koke Lasaren 'Changtok: 5.045 m: Xingiangeko ezezaguna (Txinan), 19:30ean, Santa Lutiako Kultur etxean.

OLABERRIA:

Urriak 17, 'Gipuzkoako Arroilen eta Trokateen jai-tsiera' ikusentzunezkoa, Gerra Arotzenaren eskutik, 19:00etan, Bikario-etxean.

erakusketak

LEGORRETA:

Urriaren 22tik 26ra, Juan Manuel Rostro Valleren erakusketa, Kultur etxean.

Urriaren 26tik aurrera, 'Euskal dantzaren historia Legorretan' erakusketa.

OLABERRIA:

Urriaren 7tik azaroaren 3ra, bi erakusketa: Argazki rallyan hamar urte hauetan irabazle izan diren argazkien erakusketa eta Felix Pinillosen 'Argizaiolak' erakusketa.

ORDIZIA:

Urriaren 24ra arte, Okupgraf topaketen barruan, 'Euskaldunen Herrian Barrena. Humboldt' serigrafia karpeta-
ren erakusketa eta 'Jack London' en inguruan Edu Lopez-
zen lan grafikoaren erakusketa, Barrenan.

mendi irteerak

BEASAIN:

Urriak 19, Aizkorri Mendizale Elkartea: Nafarroa Oinez, Irunberrin.

Urriak 26, Aizkorri Mendizale Elkartea: beteranoen martxa.

Azaroak 2, Aizkorri Mendizale Elkartea: Finalistaren eguna ospatzeko, Murumendi ea Garina mendi-irteera.

ORDIZIA:

Urriak 19, Ordiziako Mendizaleak: Euskadiko Beteranoen martxa.

Urriak 26, Ordiziako Mendizaleak: XXXI. Beteranoen martxa.

Azaroak 2, Ordiziako Mendizaleak: Goñi-Etxarri.

L'Arcusgi korsikar kantariak Seguran

Urriaren 24 eta 27 bitartean L'Arcusgi korsikar taldea berriz ere Euskal Herrira etorriko da. Aurrez ere iparraldeko eta hegoaldeko hainbat herritan kontzertuak emanak dituzte. Ordiziko Herri Antzokian esate baterako. Oraingo honetan Seguran 25ean, larunbatean, ilunabarrean eskainiko dute kantaldia. "Arcusgi taldea bereziki euskal populuarekiko hurbil sentitzen da eta plazer handiz gatz berriz ere Euskal Herrira". Hala aitortzen dute Louis eta Jean Marc taldekideak inguru hauetara egingo duten bisita dela-eta. "Euskal Herriarekin lotura naturala dugu taldeko partaide bat euskalduna delako, duela 25 urte Korsikan bizi bada ere".

Euskaraz ere kantatzen dute. "Aspalditxo hasi ginen euskal kantuak gure erreperitorioan sartzen. Batzuk korsikar erara moldatuak eta beste batzuk bi hizkuntzatan kantatzen ditugu. Gure album guztietan grabatu ohi dugu kantu euskaldun bat edo korsikar-euskalduna."

Euskal Herriarekiko lotura ez dute kantuen bidez soilik agertzen. Beraien Web gunean ere, euskaraz, taldearen berri ematen dute (www. Arcusgi.com). "Korsikak kultur talde ugari ditu, Arcusgi horien artean, korsikar hizkuntza eta kulturaren aldeko aldarrikapenak gure kontzertuen parte dira. Askatasuna lortzeko diharduten herri zapaldu eta minorizatu-
eko elkartasuna adierazten dugu zuzeneko emanaldietan."

Soinu eta ahozko taldea 6 musikari eta 7 kantariz osatua. Kopuru hau aldakorra izan da urteen arabera. 1989an argitaratu zuten 'Resistenza' izeneko lehen diska, azkena iaz zuzenean grabatutako CD bikoitza 'In vivu 'a fianc'a voi...' guztira 6 publikazio dituzte.

Merkatarientzat ikastaroak eta mintegiak

Merkataritzarako Aholku Teknikorako Bulegoak, informatika-ko ikastaroak eta mintegiak antolatu ditu merkatarientzat. Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo Sailaren dirulaguntzarekin antolatuta dauden informatikako dohaneko ikastaroak eta mintegiak herri ezberdinetan egingo dira, baldin eta 12 laguneko gutxieneko taldeak osatzen badira.

Jarraian dituzue ikastaroak eta mintegiak. Horietakoren bat interesatuz geroz, 943 160673 telefono zenbakira deitu izena emateko.

20 ordukoak

Informatikarako sarrera merkataritzan, kalkulu orria merkataritzan, datuen gestioa merkataritzan, informatika salmenten sustapenean, informatizatutako merkatal gestioa, ordenagailu bidez kontabilitatea, Internet merkatal telematika, ordenagailu bidez langileriaren kudeaketa, eta fiskal eta kostu gestioa merkataritzan.

2 ordukoak

Salerosketak Inteneten nola egin, saltoki elektroniko bat nola jarri, promozioak eta salmentak interneten, salmenta elektroniko-koen alderdi teknikoak, salmenta elektroniko-koen legiazioa eta fiskalitatea, eta logistika eta segurtasuna: salmenta elektroniko-koen oztipoak.

Etxebizitzak

erosi

➡ Zaldibian etxebizitza erosiko nuke. 605743796. 18:00etatik aurrera deitu.

salgai

➡ Buhardilla salgai Beasainen, Arana kalean. 943180291.

➡ Beasaingo erdigunean pisu polita eta egokitua salgai. 90 m². 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela eta trastalekua. Garajearekin edo gabe. Bista zoragarriak. 619022340.

➡ Etxebizitza salgai Ordizian, garajearekin. Guztiz berritua eta altzari batzuekin. 626292276.

errentan eman

➡ Urbasako mendi leerroan etxea alokatzen da, asteburu, zubi eta oporretarako. 948533981.

Garajeak

alokairuan

➡ Garajea alokatzen da Beasaingo Igartza Oleta kaleko 8.enean. 943885698.

Galdutako objektuak

➡ Irailaren 28an 6 urteko umearen txamarra galdu genuen Zaldibian. Urdin argia eta beixa. 943881938.

Animaliak

salgai

➡ Bost artzain txakurkume salgai. 943180291.

➡ Setter ingelesak salgai. Bakunatuak eta tatuatuak. Radentis de España eta Florimond de Rada Land jatorrikoak. 943084374 - 637721992.

➡ Basurdetarako txakurkumea salgai. Sables eta Grigai kruzea. Guraso ehiztariak. 943682052. Gauetan deitu.

➡ Setter ingeles arrazako 4 txakurkume eme salgai. Pedegree oso onarekin. 660696808 (Igor).

➡ Bi behor salgai, zelabere gisa erabiltzeko. Zaldi arabiar batekin gurutzatuak. Bat haurrentzako ezin hobea. 629528736.

➡ Euskal pottokak salgai. 943161828.

opari

➡ Txakur gazte 1 oparitzen da chip eta guzti. 696645880.

Ibilgailuak

salgai

➡ Volvo 440, 1.7 salgai. Garajea edukia. Merke. 943653493 - 652774594.

➡ Honda NSR salgai. 125 R. 2001. urtekoa. Kilometro gutxirekin. Egoera onean. 650221487.

➡ Autokarabana salgai. 5 plazakoa. Prezio ekonomikoa. 661166591.

➡ Opel Vectra salgai. Diesela. SS-AV. Haize egokitua, airbag eta itxiera zentralizatua. 4.500 euro. 676049931.

➡ Golf 1.6 salgai. SS-AP. 1.500 eurotan. Transferitua. 655741801.

➡ Opel Kadet, 1.8i salgai. SS-AJ. 1990. urtekoa. Beti garajea gona. 943889999.

➡ Opel Astra autoa salgai. SS-AP. Egoera oso onean. 605766110.

➡ Peugeot 405 autoa salgai. SS-AG. 943887041 - 943160926.

➡ Vespa motorra salgai. Oso egoera onean. 1.000 euro. 656723688.

Goierritarra

etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Txartel hau betetzen dutenei urtean 12 euro kobratuko zaizkie posta gastuak ordaintzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria: Tfnoa.: NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidali txartel hau helbide honetara: **Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia**

GUKlan

Berogintza

Iturgintza

Gasa

Klimatizazioa

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933

Nafarroa Etorbidea, 27

BEASAIN

Tailerra: Okorro, 6 - ORDIZIA

Bestelakoak

salgai

➡ Deville markako tximeneta salgai. Atea- rekin. 100 euro. 943085926.

➡ Euskaltel-euskadi karreterako bizikleta salgai, 56 neurrikoa. Egoera onean. 609966474

➡ Su egurra salgai. Iharra eta ondo txikitua. 943883410. Garraioa gure kontura.

➡ Egongelako altzari guztiak salgai: armarioa, mahai, 4 sofa eta silloia. Dena berri-berria. 250.000 pezetan. 646048047.

➡ Bi akumuladore salgai. Egoera onean. 606419407.

➡ Ford Fiesta XR2 autoaren piezak salgai. 943886506. Gauez deitu.

➡ Su egurra salgai. Beheko surako edo eko- nomikorako. 659071686.

➡ Intxaur egurrezko egongelako armarioa salgai. 300.000 pezeta. Prezio negoziagarria. Erosten duenarentzat, 3 plazako sofa bat, plaza bateko bi butaka, egongelako mahai txikia eta kristalezko 3 lanpara opari. 943085147. 22:30etik aurrera deitu.

➡ Sutarako egurra salgai. 2 metrora moztua. Olaberrian. 676882842.

➡ Peugeot 306 autoaren 4 llanta originalak salgai, kubieta berriak eta 4 llanta ronald se- paradoreekin. Prezioa adosteko. 649150243.

erosi

➡ Bigarren eskuko tri- kitixa erosiko nuke. 943187541.

Lana

eskaerak

➡ Gaintzako jatetxe batean zerbitzaria behar da. 943886243.

➡ Astebukaeratarako zerbitzaria behar da. Euskalduna. Esperien- tziaduna bada hobe. 943880044.

➡ Pertsona euskaldu- na behar da asteburue- tan taberna batean lan egiteko. 943886577 - 943160205.

➡ Goierriko jatetxe batean zerbitzaria behar da asteburuetarako. 630402575.

➡ Pertsona bat behar da Araman etxeko la- nak egiteko. 650728717.

➡ Zerbitzaria behar da sagardotegi baterako. 615700406.

➡ Beasainen, ume bat zaintzeko eta etxeko la- nak egiteko, pertsona gazte edo heldu bat be- harko genuke. 943028855.

➡ Taberna batean lan egiteko zerbitzaria be- har da. 943889848.

➡ Neska edo emaku- me euskalduna behar da Beasainen, 4 urteko haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943085602 - 656777471.

➡ Neska bat behar da tabernan lan egiteko. Astebukaeretan edo as- tean zehar. 605772623.

eskaintzak

➡ Humanitate eta En- presan lizentziaturiko mutil bat prest egongo litzateke 12-14 urte bi- tarteko gaztetxoei klase partikularrak emateko, laguntza behar duten edozein gairen ingu- ruan. Taldeak 3 edo 4 pertsonakoak izango di- ra. 653744914.

➡ 20 urteko mutila prest dago edozein la- netarako. 637781384.

➡ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko la- nak egin eta haurrak zaintzeko. 679973209 - 943884626.

➡ Klase partikularrak ematen dira Idiazaba- len. Lehen Hezkuntza, DBH, ikasketa ohiturak, eta abar. Talde txikiak eta mailaka. 658747901.

➡ 31 urteko neska prest dago arratsalde, 3etatik 8etara, haurrak zaindu, etxeko lanak egin edo dendaren bate- an lan egiteko. Espe- rientziaduna. 943800057. 20:00etatik aurrera deitu.

➡ Emakume bat es- kaintzen da goizetan etxeko lanak egiteko. 658745046.

➡ Neska euskalduna eskaintzen da Beasai- nen, haurrak zaintzeko. 943886981 - 669875234.

➡ Neska gazte bat es- kaintzen da haurrak zaintzeko edota dendari bezala lan egiteko. Es- perientziaduna eta ardu- ratsua. 625703527.

IKASTEK AKADEMIA 2003-2004 IKASTURTEA

Goierriko akademia integral bakarra. Hezkuntzako profesionalak zuzendua.

ESKOLA LAGUNTZA

- * Gai eta maila guztiak
- * Lehen hezkuntza, DBH
- * Batxilergoa
- * Moduluko, Zikloak
- * Unibertsitate-maila

IKASKETA ARAZOAK

- * Errendimendua
- * Atentzioa
- * Ohiturak
- * Metodoak
- * Emozioen kontrola

GOIERRIKO UNIBERTSITATEA

- * Marrazketa teknika
- * Fisika
- * Matematika
- * Teknologia

Joan Iturralde, 5 BEASAIN ☎ 943 160 120 www.ikastek.net



LADA
Ssang Yong

N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

ARANDIA
Garaiea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA

ONGI ETORRI taberna - jatetxea

Eguneroko menua
eguerdi eta gauetan
larunbatetan ere bai

Afariak
bataioak
jaunartzeak

Tel: 943 88 99 07
Oriamendi, 40 BEASAIN

berriz aranburu

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN



Gogo jardunak Ordizian 1953an

Iraileko GOIERRITARRAN 1950ean gogo jardunak egin zituzten gizonezko ordiziarren argazkia argitaratu genuen eta orain-goan 1953an Ordizian bertan gogo jardunak egin zituzten gazteak dira argazkikoak.

Atal honetan argitaratzeko argazki zaharrak behar ditugu. Deitu 943-889612 telefono zenbakira. Behin erabilitakoan, argazkiak itzuli egiten dira.



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Charter, Oskarbi, Osiña, Orlegi eta Orlegi Natxo. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Rufi, Lasa, Viaña eta Osaki. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia.

GERTU abokatuak



- AHOLKULARITZA JURIDIKOA
- ENPRESA ZERBITZUAK
- ASEGURUAK

BEASAIN
gertu.asesoria@terra.es
www.gertuasesores.com

Kale Nagusia, 2
Telf: 943 16 21 92
Faxa: 943 88 36 33

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

 **mazda**
Bikar, S. A.

Mazda2



☎ 943 889 296 Faxe: 943 887 952
N-1 errepidea, 419 Kma BEASAIN

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI



Lan bertikalak S.L.

Kanaloia

Bajanteak

Fatxadak

Pintura

Teilatua

Tximiniak

...

Tfnoa.: 605 712 018

Ezkurdiategi Etxea


ATAUN



SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN

TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657

e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



Lo
egiten
badakizu
amesten ikasi...

UDAZKENEAN PREZIOAK BEHERA

Swissflex somier artiku-
latu edo ohe besaulkietan

-%25

erainoko beherapena Irailaren
26.tik Abenduaren 15.era



Oheak eta osagaiak - Zorro nordikoak - Burukoak Izarak

Koltxoi-estalkiak - Alfonbrak - Kutxinak - Gortinak

Besaulki mantak - Luma edo fibrazko nordikoak

-%10

Urriaren 1.etik 31.ra Tempur
produktu guztietan, koltxoi,
somier, burukoetan...